

uk

146. zenbakia / 2008 azaroak 4



Ezagut ezazu zure alderik freskoena



Txibitan ezagutu nuen nire alderik freskoena, babarrun-ale lehor batetik justoin eder berria sortu zela ikusi nuenean. Bijak eta naturalak aurrera egiten zuten gure harridura eta gozamenetarako. Eta orain, horrenbeste urte pasa direnean, zurrara bera sentitzen dut baina Udal Merkatuan oraingoan. Beretan inguru natural batera bainaramate boloreek, usainek, tratu atseginez eta balitatezko produktuek. %100 naturalak eta oso, oso freskoak direlako.

Eros ezazu zure **Udal Merkatuan**



Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Matadero ur-biltegia.
7. LEHEN ETA ORAIN. Txurruka kaia.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Loitzun Izaola.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. GETXOPHOTO EHU.
28. ARGAZKIA. Usategi.
30. BERBETAN. Pantxoia Etchegoin.
34. FOTOGRAFIA. Julio Bittencourt.


KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Euskal Zine eta Bideo bilera.
43. MUSIKA. We are Standard, disko berria. Diskoen erreseinak.
44. LIBURUAK. G. Garate, E. Amezaga eta Iratzeder. Liburuaren erreseinak.
45. KIROLAK. Ane Ibarra, arraunlaria.
46. ELKARRIZKETA. Gabirel Ezkurdia, Basque Power.


AMAITZEKO

49. NORA JOAN. El rincón de Tellería, Leioa.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Leioako abesbatza, Bittor Egurola.
54. AITORMENAK. Oihane Perea, Maitane Nerekan.

Azala: Julio Bittencourt



30 Pantxoia Etchegoin



11 Loitzun Izaola

Berbetan


Euskal Kultur Erakundeko buru, kultura sustatzea du asmo handienetakoa. *Iparra galdu gabe* jardunaldiak izan dugu entzuteko aukera, Getxon.



46 Gabirel Ezkurdia



34 Julio Bittencourt



13 Beñat Vidal, Berbalagunak



54 Oihane Perea



Leioa Berri Auto

- Ibilgailu berriak
- Aukerako ibilgailuak

www.renaultleioa.com

Iparagirre 94 • 48940 LEIOA • BIZKAIA
Tel.: 94 480 46 02 • Faxa: 94 480 42



UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILA: Boluntzarreta Elkartea

HELBIBIDEA: Amezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171
Tel: 94 491 13 37

ZUZENDARIA: Jokin Aspuru

ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Maitane Nerekan,
Zuberora Iturburu

FOTOGRAFIA: Asier Menbaca

TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega

KOLABORATZAILAK: Jorje Perez, Bittor Egurrola,
Xabier Paya, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara
Elkartea.

MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel, Gorka Vázquez

PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)


KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta

FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF

LEGE GORDAILUA: BI-1878-00

ISSN: 1576-6799

© Boluntzarreta

 Aldizkari hau Euskal Herriko
herri aldizkari eta euskara elkarten
Topaguneko partaidea da

ERAKUNDE LAGUNTZAILAK



gugeu

UKko “okupa”

Hotzak UKko atea jo eta irribarre maltzurragaz “Kaixo, sar naiteke?” galdetu digu. Guk ezetz erantzun diogu, bulegoan jende asko gaudela, eta ez daukagula berarentzako aulkirik. Halere, sartu egin da, eta ate ondoko sofa “okupatu” du. Ez dago hemendik ateratzeko modurik; lanean gaudenean bulegoan alde batetik bestera dabil gu izorratu guran. Bera etorri denetik, mukizapiz beteta daude gure mahaiak, eta ez tul hotsa bulegoko soinu-banda da orain. Alde egiteko esan diogu, etxe barik dagoela erantzun digu; kale bereko etxe batean bizi izan da orain arte, baina Berogailu jaunak etxea erosi barri du, eta bertako “okupa” guztiak kaleratu ditu. Geuk ere berogailu jaunagaz berba egin beharko dugu.

Dana dala, ahal izan dugun moduan, aurrera atera dugu 146. zenbakia. Dantzariak, antzerkigileak, kirolariak eta beste asko ekarri ditugu oraingoan. Egitasmo barri batean ere ibili gara beharrea. Baina, horren barri, aurrerago izango duzue; bitartean, badaukazue zer irakurri.

UKko lantaldea

izan zen > Itxartuko XXVI. Ibilaldi neurtua



Urriaren 12an ospatu zuten Algortako Itxartu Taldekoek XXVI. Ibilaldi neurtua. Aurtengo edizioan inoiz baino jende gehiagok parte hartu zuen, 1127 pertsonak. Goizeko zortziak jo gabe abiatu ziren nagusienak Batzokitik, eta Berango, Sopela, Urduliz eta Getxotik ibili ostean Batzokira bueltatu ziren barriro. Bertan, lehenengo saria eman zioten Sopelako Conchi eta Felipe bikote irabazleari. Gaztetxoek, sei kilometroko ibilaldi laburra egin zuten gurasoen laguntzagaz. Hona hemen antolatzaileek bidalitako argazkia.

uk

gure posta elektronikoa

uk@aldizkaria.biz

UK Uribe Kostako Aldizkaria



[irudia]

ALGORTA, URRIAK 2

Alangoko ur-biltegia bota dute / Algortako Alango kaleko orubean zutik zegoen azken eraikina zen ur-biltegia, baina hori ere eraitsi dute, *Mataderoagaz* eta malakateagaz batera. Ur-biltegia urriaren bian bota zuten, orubean etxebizitzak egiteko. Getxoko Andra Marin dagoen ur-biltegiaren bikia zen Alangokoa, biak antenaz josita. Izan ere, biltegi gisa erabiltzeari utzi zietenean, telefono eta irrati antenak kokatzeko baliatu zituzten biak. Hemendik aurrera, ordea, ez ur eta ez antena, bakarrik geratu da Andra Mariko dorrea, betiko desagerrarazi baitute Alangoko ur-biltegi zaharra. ○ / Argazkia: **Ane Basagoiti**

mantangorri rekin

Zinema etxean 3

6 DVD euskaraz

azaroaren **15**etik aurrera larunbat eta asteazkenetan DVD bat

1. Heidi 2. Heidi hirian
2. Pippi galtzaluz
3. Axterix Britainian
4. Azti ikaslea
5. Txoritxoak
6. Zientzia fikzioa

berria + **4,90 €**

Babesak: nafungas energia, CAJA LABORAL EUSKADIKO KULTURA

berria IZARTE BUSTERRA

HARPIDEDUNENTZAT, BILDUMA OSOA **24 €** ESKARIA EGITEKO: 943 30 43 45



Iraganez doa denbora* beti / TXURRUKA KAIA

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > Mundu aldrebes batean



Algortako Portu Zaharra, GETXOPHOTO jaialdia

Testua: **Xa2 Paya** / Argazkia: **Eduardo Camino**

Kale-argi beltz bete gau
hiru horma-irudi lau,
ama birjinarekin, lau;
bost izaki beltz tunika zuriz
desertu eta enparau,
hankaz gora bi "aparbau" ...
horrek harritu egin nau;
mundu aldrebesa da hau!

Milla farola parkean,
hiru leiho trinketean;
eta pampin bat tartean;
bost lagun zuri tunika beltzez
baso baten itzalpean,
bi etsai musu batean ...
daude askoren artean
mundu aldrebes batean.

Mundu honen erruletan
ikusten da bueltan-bueltan
zer daukagun eskuetan.
Mundua maite izan ezean
ez jarri esku-gainetan
edertasuna, benetan,
ez da txertatzen gauzetan
baizik gure begietan.

* Doinua: Ikusten duzu goizean

internet > zerberri.com, euskarazko albiste bilatzaile aurreratua



Ehun albiste iturritik elikatzen da zerberri.com gunea

Euskarazko lehenengo albiste bilatzailea jarri dute martxan Gorka Julio eta Haritz Rodriguez informatikariek. "GoogleNews" guneak eskaintzen duen zerbitzu bera eskainiko du "Zerberri.com" guneak, baina euskaraz; izan ere, Googlek ez du euskarazko zerbitzurik eskaini orain arte. Albiste bilatzaileak, iturrien aurretiazko bilaketa erabiltzen du, hau da, aldez aurretik aukeratutako iturri euskaldunen emaitzak ematen ditu; honez gain, denbora tartearen arabera bilaketa egiteko aukera ematen du. Gaur egun, ehun albiste iturritik elikatzen da; hala ere, iturri kopurua handitzeko asmoa daukate egitasmoaren bultzatzaileek. "Euskarazko Internet sareari ekarpena" egin gura izan diote gazte biek. Gainera, epe laburrean beste egitasmo batzuk aurkeztuko dituztela iragarri dute, nahiz eta ez duten zehaztasun handirik eman. ○

bidaiak > Lonely Planet bisita gidak Euskal Herria aukeratu du



Piriniotako paisaiak aipatzen ditu Lonely Planet-ek besteak beste

Oporretan joateko diru barik zaude? Zaude trankil, osteratxoa besterik ez duzu egin behar munduan bisita daitezkeen hamar leku aproposenetako bat ezagutzeko. Hori uste dute behintzat Lonely Planet bisita gida ospetsuko egileek. Izan ere, 2009an munduan bisita daitezkeen hamar lekuen artean jarri dute Euskal Herria. Izadia, Pirinioetako paisaiak, artea, gastronomia eta kaleko giroa aipatu dituzte gure lurralde bisitatzeko arrazoien artean. Zerrendako bigarren lekuan daude euskal lurralde Tasmaniako (Australia) Su Badiaren atzetik. Honez gain, Ko Tao irlak (Tailandia), Languedoc (Frantzia), Nam Ha (Laos), Svalbard (Norvegia), Yunnan (Txina), San Andres eta Providentzia irlak (Kolonia) eta Big Island (Hawai) agertzen dira. ○

uk zure **dirulaguntza** behar-beharrezkoa dugu!

Boluntzarreta
BBK 2095 0121 10 9102483676
sartu zure laguntza gure kontu zenbakian

UK Urbe Kostako Aldizkaria 171 posta kuba / Amezi 6, 4. solairua 5. bulegoa / 48990 Getxo / ukaldizkaria@telefonica.net / tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31 / bulego ordutegia: 08:00 / 15:00

saiaz getaria
HOTELA

Roke Deuna 25
280808
Getaria
Gipuzkoa

...harria ...lehenengo garaia... ...itsasoa

www.saiazgetaria.com / info@saiazgetaria.com / t. (+34) 943 140 143

[talaia]

getxo > Areetako Santa Ana kaleko 16 ezki moztu dituzte



Santa Ana kaleko 16 ezki moztu dituzte

Iskanbila handia sortu dute Areetako Santa Ana Kaleko ezkiek. Urriaren 21ean horietako 16 moztu zituen Udalak, auzokideen, zolaren eta oinezkoen onerako zela argudiatuz. Espaloiaren egoera hobetzeko beharrezkoa ikusi du udalak ezkiak moztea. Zuhaitzen sustraiek kalteak eragin dituzte saneamendu eta elektrizitate sarean. Gainera, zuhaitzen adarrek, hartu duten forma eta norabideagatik, oinezkoentzako arriskutsuak izan daitezkeela aipatu zuten. Getxoko Udaleko Alderdi Popularreko lagun eta zenbait auzokide ez dira gustura gelditu gobernu taldeak emandako argudioakaz, eta keak aurkeztu zituzten. PPK prentsaurrekoa eman zuen zuhaitzak moztu zirenean, Santa Ana kalean bertan. Moztutako ezkiek lekuan, gorostiak landatuko dituzte, horiek egokiagoak izan daitezkeela uste baitute. Bestalde, moztutako zuhaitzak Udalerriko beste lekuren batean landatzea posible den aztertuko du Udalak. ◯

hezkontza > etxerako lanak egiten laguntzeko liburuxka osatu dute



Liburuxkak Mankomunitateko herrietan eta Erandion banatuko dira, besteak beste

AlkARBIDEK haurrei eta euren gurasoei etxerako lanak egiten laguntzeko liburuxkak osatu ditu. *“Ama, aita eskolako lanak neuk egin behar ditut”* egitasmoaren parte da liburuxka. Horretan, eskolako lanak egiteko erabilgarri izan daitezkeen materialaren zerrenda, gurasoei zuzendutako zenbait aholku eta, euskaraz ez dakiten gurasoentzat, hizkuntzaren oztopoa gairatzeko baliabideak bildu dituzte. Bizkaiko 19 udal eta 2 mankomunitatek parte hartu dute kanpainan; horien artean, Uribe Kostako Mankomunitatea eta Erandioko Udala daude. Guztira 30.000 liburuxka inguru banatuko dira 6 eta 12 urteko umeak dituzten gurasoen artean. Honez gain, osagarri gisa, tailer bereziak antolatuko dituzte udalerrietako euskara zerbitzuek. Azken hauek, urria eta abendua bitartean egingo dira. ◯

[erretratu]



“Kaletik noala jendea aholku eske hurbiltzen zait; ulertu behar dute nik ez dudala denerako irtenbiderik”

Loitzun Izaola > Sopelako Mugi fisioterapia zentroko kidea

Askoren minak desagerrarazi dituzte Loitzun Izaola sopeloztarraren eskuek, eta ez da magoa. Oraindik gaztea bada ere (27 urte ditu), sei urte baino gehiago daramatza fisioterapeuta lanetan koinatagaz batera sortu zuen *Mugi* zentroan: *“Ikasten nuen bitartean, gizon bategaz egon nintzen lanean. Berak, lan egiteko modu berezia irakatsi zidan; bezeroakaz ordu bete egotean datza, bakoitzari behar duen arreta eskaini ahal izateko. Hasieratik argi neukan zentroa zabaldu nahi nuela herrian; koinatari komentatu nion, eta martxan jarri genuen”*. Esku-ohea, krema apur bat eta bere eskuak izan ziren hasierako baliabide bakarrak: *“Gutxika material gehiago eskuratu dugu. Jendeak ondo erantzun zuen hasieratik”*. Euskal Seleksioko eta Athleticeko gazteak, herriko agureak, etxekoandreak... denetarik pasa da Mugi-tik: *“Kasu zailenak dira gehien gustatzen zaizkidanak; horiek aurrea ateratzea pozgarria da”*. Hala ere, lanak badu alde txarrik: *“Kaletik noala jendea aholku eske hurbiltzen zait. Paelletan adibidez, behin baino gehiagotan sendatu behar izan ditut borrokan ibili edo botila batez irrist egin eta lurrera erori direnak. Jende asko ezagutzen dut, berba egitea asko gustatzen zait, baina ulertu behar dute ez dudala denerako irtenbiderik”*. Herriko gizona da Izaola; kontsulta barruan zein kanpoan ondo moldatzen da jende artean. ◯ Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Maitane Nerekan**

cianoplan **Reprografia**

global printers

Villa de Plentzia 6. zbk
Antigua Golf - Getxo
Tf. 944 649 087
944 648 691
<http://www.cianoplan.es>

- Imprimatze eta plano kopiak •
- Kartelak kolorez eta z/b •
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua •
- Fotokopiak kolorez eta z/b •
- Era desberdinetako koadernaketak •
- Plastifikazioak •
- Cd eta DVD grabaketak eta imprimaketak •
- enmarkaketak •



Auzitegien ebazpena (I)

Udal Arautegi Organikoa berritzeko "proposamena" indarrean ez ipintzeagatik, **PP eta PSE-EEK** ipinitako **demanda ez du onartu** Bilboko **Administrazioarekiko Auzien II. Epaitegiak**

Administrazioarekiko Auzien Bilboko 2. Epaitegiak Getxoko Udaleko PP eta PSE-EE alderdiek ipinitako demanda errefusatu du. 2007ko azaroaren 8ko ez ohiko udal batzan oposizioko bi alderdion botoakaz Udal Arautegi Organikorako (UAO) proposamena onartu zuten; gerora hori ez zela egikaritu (ez zela gauzatu) ikusi zutenean alderdiok epaitegiara eroan zuten auzia.

UAOK Udalaren eguneroko funtzionamendurako eredu-arau legalak ezartzen ditu eta orain dela urte beteko ez ohiko udal batza hartan horri aldaketa batzuk egitea onartu zuten PPren eta PSE-EEren aldeko botoakaz. Getxoko alkate EAJko Imanol Landak gogorarazi duenez, udal batza hartan egindako akordioa ez gauzatzeko edo egikartzeko bere erabakiaren aurka PPK eta PSE-EEK bi demanda ipini zizkioten epaitegietan. Landak adierazi duenez, bere erabakia hartzeko bi txosten juridikotan oinarritu zen, bata udal idazkariak egindakoa eta bestea EHUko bi katedradunena. Bere esanetan, txostenek zera ondorioztatu zuten: "proposatu ziren anaien onarpena udalbatzaren borondatearen adierazpen soila zela, ondorio edo eragin juridiko bakoa; proposamenak ez zituelako bete legez ezarritako prozedurak (Informazio Batzordetik ez zen pasa eta ez zituen beharrezko txosten tekniko ezta juridikorik)". Ostera, oposizioko alderdi nagusiek, PPK eta PSE-EEK, ez zuten akordio hura modu berean ulertu, eta auzitegira jo zuten.



Iazko azaroaren 7ko ez ohiko udal batzako akordioaren "ulermen askeek" sortu ei dute eztabaida

Orain Administrazioaren Auzien Bilboko 2. Epaitegiak bi demandatako bat errefusatu du. Landaren ahotan epaitegiaren ebazpenetik hurrengo ondorioztatu daiteke: "ebazpenak Arautegia indarrean egotea ezeztatzen du eta zinegotzien eskubiderik ez dela urratu adierazten du". Izan ere, bi horiek ziren demanda egileen oinarritzko argudioak. Hau da, PPK eta PSE-EEK alka-

«Landak oposizioko alderdi nagusiei batzartzeko deia egingo die hil honetan, UAO berritzeko lan egiteko.»

tearen kontrako demanda aurkeztu zuten uste izan zutelako haren jarduerak zinegotzien eskubideak urratzen zituela, hain zuzen ere parte-hartze politikorako eskubidea. Horrez gainera, demandan bertan emango zen epaia betearazlea izatea eskatu

zuten, horrenbestez ebazpena euren aldekoa izanez gero, PSE-EEK eta PPK proposatutako Arautegi Organikoa onartzea ekarriko zukeen. PPKo zinegotzi Marisa Arruek azaldu zuenez "ebazpena zinegotzien eskubideei dagokiona da; oraindik ez da epaitu UAOren kontua (abendua 2)". Dena dela, ebazpenaren aurka goragoko auzitegiara jotzeko aukera ere badute.

Alabaina, eztabaidan diharduten alderdiok (EAJ, PP eta PSE-EE) hirurak ados daude UAO berritzu beharraz. Horretarako, PSE-EEren eta PPren proposamenak "irregularitasun garrantzitsuak" dituela goraiatu ostean, Landak adostasunaren alde dei egin du eta hil honetan oposizioko alderdi nagusiei batzartzeko deia egingo diela azaldu du, "legalki ezarritako prozedurak beteko dituen eta denon artean negoziatutako UAO berri bat osatzeko lan egiteko". ○

Etxe Sorgindua

Zaharberritzeko lanak beste batek egingo ei ditu



Etxe Sorgindua (edo Etxe Arrosa delakoa) Algortako Basagoiti Etorbidean dago

Getxoko Udalak Etxe Sorgindua (edo Etxe Arrosa delakoa) zaharberritzeko lanak egiten zebilen enpresagaz zuten kontratua bertan behera utzi du, enpresak lanok atzeratu dituelako eta kontratua betetzea ere zalantzan dagoelako. Izan ere, Getxoko Udaletik jakinarazi dutenez, enpresa horrek lanen zati bat egiteko azpikontratatu zituen hainbat gremiori ez ordaintzeko agindua eman zuen eta, horren albotik, bere etorkizunaren gaineko erabakia (ateak itxi ala ez) administratzaile judizialen esku utzi du. Horregatik erabaki du Gobernu Batzordeak enpresa horregaz hartu-emonak amaitzea, "kontratua ez duelako bete", eta Etxe Sorginduko lanak ahalik eta arinen, berriro ere, hasi gura dituelako.

Bestalde, enpresak kontratua ez betetzeak eragin dakizkioken kalteak eta arazoak zehaztu eta kexak aurkeztu ahal izateko azterketa

bat egiten hasi da dagoeneko Udala. Horrez gainera, kontratua betetzeko 48.000 euroko bermea berreskuratzeko erabakia ere hartu du. Dena dela, lanak egin behar zituen enpresa horregaz akordio batera heldu da Gorbenu Batzordea, horren arabera, enpresa horrek egindako lanengatik jaso behar duen dirua lanok egiten diharduten beste enpresei eman beharko die. Ondorioz, udal eraikinaren zaharberitze egiteko lanak ahalik eta arinen hasiko lirakeke berriro ere. Eta hori da Gobernu Taldearen helburua, zaharberitze lanak gehiago ez atzeratzea, eta lehenbailehen beste leku batzuetan dauden udal zerbitzueta hainbat bulego bertara itzultzea berriro ere.

Amaitzeko gogoratu, Etxe Sorgindua zaharberitzeak 1.213.500 euroko aurrekontua duela eta lanak amaitzeko epea urte betekoa zela. ○

TIPITAPA HERRIRAKO BESTE 48.101 EURO

Tipitapa (Managuako ipar-mendebaldean, Nikaragua) herrian azpiegiturak hobetzeko egitasmo batez elkarlanean jarduteko 48.101 euroko diru-laguntza emango du Getxoko Udalak. Udalerri horretako Oronte Centeno auzoan ibai-drainatze-sistema bat eraikitzean datza egitasmoak. Orain dela hamar urte dela gehiagotik hona Euskal Erakunde Kooperanteen Elkarte edo Euskal Fonda, (Getxoko Udala partaide da) eta Tipitapako udalerriko alkatetza elkarlanean jardutearen emaitza da proiektu hori. Egitasmoa 9.000 lagunengatik onurarako izango dela adierazi dute (Tipitapak 109.000 biztanle ditu), eta "bere helburua euriaren ura bideratzea da, horrela aipatutako lagunengatik ez legoke uriolarik". Lankidetzak Garapeneko Zerbitzuko zinegotzi Begoña Ezkurrak adierazi legez, "Getxoko Udalak Euskal Fonda Nikaraguan dituen egitasmoen alde egiten du, bereziki Tipitapan aurrera eramaten ari denen alde. Horiatarako 2001etik 2008ra getxoztarrek emandako diru kopurua 338.789 eurokoa izan da".

ADMINISTRAZIOARI EUSKARAZ EGITEKO

Euskara Zerbitzuak "Bai esan..." kanpaina abian ipini du, "herritarak, eta bereziki gazteak", administrazioarekiko harremanetan euskara erabiltzera animatzeko helburuagaz. Kanpaina iaz egindako beste baten jarraipena da, eta "oraingoa euskara etorkizuneko hizkuntza dela eta administrazioaren tramiteak euskaraz egitea erraza izan daitekeela azpimarratzen da".

HERRIKO KIROL ENBERRI SAREKO GUNE BERRIAN

Udal Irratiaren programazioaren zati bat, kirolei dagokiena, ordezkatuko du Getxoko Udalaren web guneak zabalduko duen kirol gune berriak. Udaletik azaldu dutenez, hala irratia informazioa igortzeko erabiltzen zuten kostu ekonomikoa gutxitu dute, ondorioz kirol elkarteentzako urteko dirulaguntza %20 igo ahaliko dute.

san inazio
autoeskola
1951n sortua

LCC - A1 - A - B - BTP
baimenak

Telletxe, 13 / Tel. 94 460 00 45
ALGORTA

Garaizar
berrikuntzak

- igeltserotza orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak

tel: 944 430 52 43 / 607 952 977 • regaraizar@euskalnet.net
Ilieta kalea 1 • ALGORTA



Torreña 2, ALGORTA
T. : 94 491 12 71

Beñat Vidal > Berbalaguna ekimenaren arduradun barria

“Ekimena egiten dugu teorikotasunetik kanpo ere ulertzeko euskara... eta erabiltzeko!”



Beñat Vidal bertsolaritzan ere badabil

EGIZU barruko ekimena da Berbalaguna, euskaldun barriak eta zaharrak harremanetan ipintzen dituena, euskaraz egiteko, aritzeko eta euskara ahoan bizi izateko. Horretarako zaletasun, adin, ordutegiaren arabera taldeak sortzen dituzte, eta astean behin-edo elkartzen dira. Aurten arduradun barria dauka ekimenak, Beñat Vidal leioztar gaztea.

—Zergatik hurbildu beharko luke norbait Berbalagunara? Zer aurkituko du?

—Orain gabilta euskaltegietan aurkezpenak egiten, eta komentatzen dugu beharrezkoa dela euskara ikasteko gogoia edukitzea, ikastekoa, gero hezkuntza bera ere, edo ezagutza, hau da, euskaltegira bertara joatea ikastera gramatika, sinonimoak etab. Eta gero, dago erabilerak, beharrezkoa dena euskara ikasteko, teoriarik hartzen den hori gero praktikan jartzeko eta apur bat, herdoilduta ez geratzeko; euskaltegitik kanpo eman daitezkeen egoeretan eta euskara erabiltzea ere aberasgarria izan daitekeelako. Beraz, apur bat hori, teorikotasun horretatik kanpo ere ulertzeko euskara, kalean ere erabil daitezkeela edozein egoeratan, eta erabiltzeko!

—Gurasolagun proiektua ere badago,

belaunaldikako transmisioagaz lotuagoa?

—Proiektu hori ere badago, horretaz Sendi arduratzen da: familientzat da, gurasoen eta seme-alaben artean euskara sustatzeko, belaunaldien arteko oreka mantentzeko.

—Beste pauso txiki edo berezitua legez da?

—Hori da. Gurasolagunean eurek, gurasoek sortzen dituzte taldeak; zelan Berbalagunerako sortzen ditugun, adinaren edo zaletasunaren arabera, bada, kasu honetan gurasoen taldeak sortzen dira. Horiek badute berezitasun bat: badaukatela aukera seme-alabak badituzte berbetan ari diren artean, begiraleak euren semeak zaintzeko.

—Zeren arabera sortzen dituzte taldeak?

—Izena ematen dutenean adina, nongoak diren, zaletasunak etab. esaten dizkigute; beraz, horren eta ordutegiaren arabera ere

osatzen dira taldeak; bakoitzak zer nahiago duen ere jartzen du, adinkideak egon gura duen, zaletasun kideak etab. Denetarik taldeak daude: kafea hartzeko batzen direnak, palan jokatzera joateko, mendi taldea ere badago (hilean irteera bat egiten dute). Gazteak badaude, baina gehiago dira adin-ertainekoak eta hortik gorakoak; denetarik dago, proportzioak ez dira horren nabariak. —Urtean zehar izena eman daiteke?

—Aurreko urteetatik taldeak nahiko finkatuta daude, baina oraindik ere badabil jendea apuntatzen. Talde horiek matendu, eta jende barria hor sartu, edota talde barriak sortuko ditugu. Baina bai, urte osoan zehar dago zaba-

«Urte osoan zehar dago zabalik Berbalaguneko atea etorri nahi duten guztientzat»

lik Berbalaguneko atea etorri nahi duten guztientzat. Askotan gertatzen da, hasieran aurreko urteetan ibilitako jendea lanpetuago dabilena eta; beranduago, Gabonen ostean edo, denbora gehiago dutenean animatzen direla; gu beti prest jendea hartzeko.

—Erronka barririk? Bertsolaritza...

—(Kar, Kar). Ni oraingoaz nago ea burua bertan jartzen dudana, kokatzen, eta oraingoaz aurrekoagaz jarraitzea da asmoa. Ematen du orain arte ondo funtzionatu duela, datu eta esperientzia politikak izan ditugu, gero zerbait barria ateratzen bada... Berbalagunarena guztiz irekia da, eta hemen proposatzen dena martxan jartzen saiatuko gara gu. Bertsolaritzarena... Lehen ahaztu zait, Berbalagunak antolatzen du bertsolaritza ikastaroa ere 0-tik hasita, beno aurtuan 0,5tik hasita, iaztik dator kontua, ALBEko Josu Landetak ematen du, eta hor badago taldetxo bat badabilena ikasten eta aritzen. Gero, nire ekarpena egin badezak, bada egingo diot! ○

Adi bertsozale!

Bihotza Gazte ikuskizuna **hilaren 7an** izango da eta Mendizabal eta Murua ibiliko dira bertsotan



Pasa den urteko Bihotza Gazte ekitaldiko argazkia

ALBEren (Algortako Bertsolari Eskola) urteroko beste hitzordu edota “bertsordu” bat dugu aurrez aurre: Bihotza Gazte bertso saioa, Udaltza Zerbitzuaren laguntzagaz antolatuko dutena. Aurtengoagaz seigarren ekitaldia beteko du bertsolari “beteranoek” edota plaza andana ibilitakoek bideratutako saioak.

Ekitaldia azaroaren 7an egingo da Algortako The Piper’s Irish Pubean eta zita gaueko 09:00etarako ipini dute. Aurtengo bertsolari gonbidatuak gipuzkoarrak dira biak, Mikel Mendizabal (Itsasondo, 1956) eta Iñaki Murua (Gabiria, 1956). Bertsozale webguneak jakitera ematen duenez, Mendi-

zabalen lehenengo plaza (bertsolari legez egindako lehenengo saioa) Beasainen izan zen 1974an, Xabier Zeberio, Juan Inazio Begiristain eta Iñaki Murua kantulagun zituela eta Sebastian Lizaso gai-jartzaile zela. Muruarena, osterara, Gabirian izan zen 1973an, Osinalde Elkartearen afari batean, aitagaz eta Eusebio Igarzabalegaz batera.

Bestalde, Bihotza Gazte bertso saioak musika ikuskizun bat ere ekarriko du bere baitan, Kupela taldearena hain zuzen. Hala, bihotza eta mihia ere gazte eta abilek dituen bertsolarigaz gozatu zein Kupela taldeagaz dantzatu gura duenak badaki nora jo. ○

III. SMS ETA BIDEO LEHIAKETA ABIAN DAGO

Urtero legez Bizarra Lepoan euskara elkarteak SMS eta bideo lehiaketa antolatuko du Euskara Jardunaldiei begira. Bertan parte hartzeko eta sakelako mezuak zein bideoak bidaltzeko epea hilaren 10etik 30era bitartekoa da. Gaia “Bdzu amtsk” izango da eta lanek euskaraz eta jatorrizkoak izan behar dute, mezuak sms batean sartu beharko duzu eta bideoak gehienez ere minutu batekoa izango beharko du; SMSa azpian agertzen den zenbakira bidali behar duzu eta bideoa euskaltzuberaren ostean lotura beheko helbidera bidali. Sari banaketa abenduaren 5ean izango da eta sarien artean argazki kamera bat, portatila, mp4a eta sakelako telefonoa daude.

Informazio gehiago: 688687825
bizarralepoan@euskalnet.net

“INDABADA MUNDIALA” HILAREN 15EAN

Algortako Txiki eta Otaegi plazan egingo da IX. Indabada Mundiala, Algortako Gazte Asanbladak jakitera eman duenez: “9 urtez lapikoak indabaz betetzen, herria elikatzen. 2000. urtetik hona gauza asko aldatu dira, baina guk hasierako filosofiarekin jarraitzen dugu, herrietik sortutako jai bat herriarentzat”. Egitarauari begira txotx egiten hasiko dira 13:00etan, ordu erdi beranduago ekitaldia eta aurrekoa egongo dira, 15:00etan izango da bazkaria eta gero “zozketak, kanta herrikoiak, bingoa, apustuak...”, 20:00etan elektrotzarangaz batera herri poteoa egingo dute eta 02:00etatik aurrera gura duenarentzat gaupasa Txorimalo gaztetxean. Bazkarirako sarrerak 6 eurotan daude salgai Algortako hainbat tabernetan.

EMAKUME IZENA DU SAHARAK ERAKUSKETA

Mundubat GKEaren Emakume izena du Saharak argazki erakusketa ikusgai egongo da Erromoko erakustaretoan hilaren 10etik 15era bitartean (astegunetan 11:00-13:00 eta 18:00-21:00, larunbatean 11:00-13:00).



Basurto
Algorta S.L.
altzariak

LEHEN, ORAIN ETA BETI

- **1970**az geroztik altzariak diseinatzen.
- 300 m²ko erakusketa **ZURE ZAIN!**
- **ARMAIRUAK NEURRIRA** egiten ditugu (Telletxe 4)

Telletxe 4 • T: 460 71 62 / Telletxe 15 • T: 460 42 44 • ALGORTA

Andoni Aresti Landa > dantzaria eta dantza irakaslea

“Dantza ez da soilik dantzaria izan gura duenarentzat, aisi-eremua da askorentzat”

Irailean ekin zion ikasturte barriari bere dantza eskolan Andoni Aresti leioztarrak. Herritik kanpora 25 urte egin ondoren, iaz bueltatu zen dantza eskola zabaldu eta euskal dantzariei bertan trebatzeko aukera eskaini guran. Leioako Iturriondo kalean dauka eskola.



Andoni Aresti Leioan daukan dantza eskolan (Iturriondo 10, 4. solairua)

—Kurtso berriari ekin diozu, baina orain urtebete zabaldu zenuen eskola.

—Bai, duela urtebete etorri nintzen Erromatik, han bederatzi urte egon ondoren. Lehenago 14 urte eman nituen Salzburgon dantzan. Erroman aktore ibili naiz, baina ballet eskolak ere eman ditut, eta gustukoenuena zela ohartu nintzen. Nire anaiak orain urtebete zoriz topatu zuen Leioako lokala, eta ikusi bezain laster erabaki nuen eskola muntatzea, eta Erromatik itzuli nintzen. Hemendik kanpora 25 urte eman ondoren.

—Eta zelan doakizu eskola?

—Uste baino askoz hobeto. Urtebete baino ez dauka, eta dagoeneko alboko beste lokal bat hartu dugu, 250 metro koadrokoa. Formakuntza eskola zabaldu dugu, gela gehiago eta dantzari buruzko liburutegi-bideoteka jarri ditugu, egitasmo polita da. Proiektuan konfiantza daukan irakasle taldearen laguntza daukat, dantzariak trebatzeko.

—Zer espero duzu, zein helburu duzu

eskola berriagaz?

—Jarraitu beharreko lan ildo argi bi dauzkat. Bata trebakuntza da. Nik hemendik alde egin behar izan nuen hemen ez neukalako non trebatu; beraz, erronka garrantzitsua da, apurka kontu horretan aurrerapausoak ematen dabiliz arren. Bestetik, dantzarako gunea izatea gura dut. Dantza ez da soilik dantzaria izan gura duenarentzat, aisi-eremua da askorentzat. Terapia lan ederra da, gazteen autoestima lantzeko, adibidez. Helduentzako labo-

rategiak ere baditugu; sekula dantzatu ez, baina dantzatzea gustuko dutenak oso emaitza onak dauzkagu. Ilusio handia daukat horregaz.

—Denetarik eskaintzen duzue eta adin eta maila guztientzat, beraz?

—Bai, dantza klasikoa, garaikidea, moderno, flamenkoa, hip-hop, funky, euskal dantzen eta klasikoaren arteko fusioa, helduentzako laborategiak... Eremu zabala hartzen dugu. ○

Araztegia itxia izango da

Hala iragarri du Kantauriko Ur-konfederazioak, auzokideek **zarata eta kiratsa jasan ez** dezaten



Lamiako auzoan ezarri gura dute araztegia

Lamiako auzoan jarri gura duten araztegia itxia izango da, Jorge Marquinez Espainiako Iparraldeko Ur-konfederazioko presidentek urrian iragarri zuenez. Auzokideek araztegiak sortuko lukeen zarata eta kiratsa jasan behar izan ez dezaten eraikiko ei dute horrela. Marquinezek Espainiako gobernuak egitasmoan egingo duen inbertsioa azaldu zuen. Haren iritziz, araztegiagaz itsasadarren saneamendua errematatuko dute, eta Bilbo Handian bizi diren ia milioi bat pertsonen mesede egingo die.

Une honetan egitasmoa erredaktatzen eta ingurumenaren gaineko eragina aztertzen dabilta. Marquinezek esan zuenez, urte amaieran jakinaraziko dituzte araztegiaren xehetasunak, “*informazioa publiko*

egiten denean”. Dena dela, aurreratu zuen instalazioa “*oso moderno*” izango dela, eta “*ingurugiroa errespetatuko*” duela. Baina hori lortzeko ia 100 milioi euro inbertitu beharko direla jakinarazi zuen. Alderatzeko, Galindoko araztegiak 69 milioi euro kostatuko duela esan zuen, eta milioi bat pertsonaren hondakin-ura tratatzeko gaitasuna duela. Lamiakokoak 325.000 pertsonaren hondakin-ura tratatuko luke, adierazi zuenez. “*Horrek erakusten du oso ahalegin garrantzitsua egin dela eragina txikiagotzeko, eta punta-puntako teknologia txertatzeko*”.

Lamiakoko auzokideek, oster, ez dute begi onez ikusten egitasmoa, behin eta berriro salatu dute informaziorik zein iritzia emateko aukerarik eza. ○

UNIBERTSITATE BARRUKOA IZANGO DA UNBERA DOAN BIDEA

Leioa eta Unbe lotzen dituen betiko errepidea EHUko kanpusaren barneko bidea izango da, egokitze lanak amaitutakoan. Ondorioz, kanpusaren bizkarrezurra izango ei da, instalazio barriak egin eta gero. Sarrienako biribilgunetik Erandiora arteko errepidearen zatia da, beraz, Unbe eta Leioa artean ibiltzeko, saihebidetarik egin beharko da, orain hilaibete batzuk legez. Orain arte Bizkaiko Aldundiaren esku egon da errepidea, baina Leioako Udalarari eman dio, etorkizunean unibertsitatearen parte izan dadin.

ENPRESAK ERAIKIKO DITUZTE OSPITALEA ZEGOEN LEKUAN

Saltuenan eraikiko dituzte kutsadurarik sortzen ez duen enpresa gunea, amaitu bako ospitalea zegoen lekuan, hain zuzen ere. Eraikitzen hasi aurretik, ordea, hirigintza-araudietan aldaketak egin beharko dituzte Leioa zein Erandioko Udalek; industrialdera sartzeko eta handik irteteko errepideak eraikiko dituzten lurak, hiri-antolamenduan sartu ahal izateko. Bulegodun dorrea eta zazpi eraikin txikiago egingo dituzte.

ABIAN DA BAKE KULTURA ETA BITARTEKOTZA KOMUNITARIOA EKIMENA

Udalak 52.464 euro bideratuko du aurtengo EHUko GEUZ Gatazka Eraldatzeko Unibertsitate Zentroak bideratuko du programa, eta lau ataletan banatu dute: elkarriketarako gidaren aurkezpena, prestakuntza tailerrak, mahai ingurua eta diagnostikoa. “*Herriaren elkarkidetzaren osoa lortzeko betebeharrak*” zehaztuko dituzte, horretarako “*plan berezi bat zehazten dituzten ildo nagusiak*” finkatuko dituzte abendurako.

udondo
taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2
T: 94 463 00 45 - LEIOA

ERROTULOAK

BEST

ERA GUZTIETAKO
ERROTULOAK eta
INPRESIO DIGITALAK

egiten ditugu

e-mail: hirstab@euskalnet.net

Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83



- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelera 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitarra, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tf: 94.464.23.64 / 94.464.33.07
e-mail: leioa@ikastola.net • www.ikastola.net/ikasweb/leioa

[erandio]

Aiora Sedano, Raquel Pousa eta Eva Guerrero > Tirante plataformako kideak

“Lutxana auzo ahaztua zen, ekimenak antolatzen dituzte, *Noviembre Kultura* tarteko”

Iritsi da aurtengo *Noviembre Kulturala* Lutxanara. Tirante plataformako lagunak eskola zaharri azken ukituak ematen dabilta, antzerki, kontzertu eta tailerretarako prest uzteko. Aurtengo nobedadeak kontatu dizkigute bien bitartean.

—Zazpigarrena duzue aurten, baina zertan datza *Noviembre Kulturala*?

—Izenak dioten moduan, kultura eta kultura da: kontzertuak, hitzaldiak, antzerkia, musika, dantza... Denetarik nahasten dugu. Keli taldeak sortu zuen ekimena da, orain urte pare bat eman ziguten lekukoa, guk lehen laguntzen baikenien. Halere, Kelikoak beti daude laguntzeko prest.

—Nolatan sortu zuten?

—Kelikoek ikusten zuten Erandioko auzo ahaztua zela Lutxana, ez zela ezer egiten. Horregatik saiatu ziren hemengo jendearentzako gauzak antolatzen. Gu ere sartu ginen horretan, bertakoak izan ez arren. Gune honetaz gozatzen dugu, eta jadanik bertakotu gara. Orain Lutxana kanpotik ere etortzen da jendea ekimen hauek ikustera.

—Orduan, nondik dator Tirante?

—Antzerki eskola berean ikasi genuen, eta konturatu ginen gure gauzak sortzeko gunea behar genuela, eta plataforma sortu genuen. —Eta zer ikusiko dugu aurten?



Aiora, Raquel eta Eva Lutxanako eskola zaharrean, ekitaldiak egingo dituzten lokalean

—Bilbao Antzerki Dantzaren ostean dator gurea, han egondako talde batzuk Lutxanara etorriko dira. Espe Lopezek *clown* ikastaroa emango du. Titere eta birziklapen tailerrak ere prestatu ditugu. Herri okupatuak, zein itsas hondoi buruzko hitzaldiak egongo dira. Kontzertua eskainiko dute Soulados, Vinagre edota Osa and Cerezos Project-ek. Antzerkia egingo dute Ander Lipusek, Aborigine taldeak, Eider Tellaetxek eta La Dolorosa konpainiak, beste beste. Programa osoa ikus daiteke gure

web gunean: www.plataformatirante.com, eta ikastaroetan izena emateko, ondoko telefono zenbakira deitu: 688 618 636. Ekimen guztiak dira doakoak, eta Lutxanan, azaroaren 6koak izan ezik, horiek Altzagan izango dira.

—Gustura emaitzagaz?

—Bai, baina lan handia dago. Egun osoan egon behar dugu eta denetarik egin, teknikoarena, barran zerbitzatu... baina laguntzaile asko ditugu, eta lan egin behar denean jendea prest dago, talde majoa osatzen da. ○

Klik batean

Berbots elkartearen **argazkigintza ikastaroa** abiatzear dago, segi izena ematera!



Bordatxu gazte txokoa egingo dute ikastaroa, Altzaga auzoko San Jeronimo kaleko 14. zenbakian

Digitalizatuta bizi gara eta argazki-kamarak moda-modan daude, baina inork badaki ganorazko argazkia egiten? Arazoa konpontera dator Berbots Erandion Euskaraz elkarrekin antolatu duen ikastaroa. Argazkigintza digitala irakatsiko dute azaroaren 8tik 29ra, zapaturo, 11:00etatik 13:00etara Bordatxu gazte txokoa (San Jeronimo 14, Altzaga).

Argazkigintzaren oinarriak ezagutzeko abiatuko dute ikastaroa, kamararen oinarriko elementuak azalduz: diafragma, obturadorea... Teoria ikasi eta praktikan jartzeko unea iritsiko da orduan, kalera atera, eta irudiak hartzeko. Baina ez da horretan geratuko ikastaroa. Argazkia egin ostean txukuntzeko aukera eskaintzen baitu ordenadore bidezko

Photoshop programak. Oinarriko gauzak egiten ikasiko dute parte hartzen dutenek.

Lehenengoz prestatu dute ikastaroa, bai hori, eta bai azaroaren 1ean egin zuten txokolin kata. Abiapuntua izan dira biak, emaitzaren arabera, beste saio batzuk egin litzakete.

Bestalde, urteak daramatza Berbotsek sukaldaritza eta bestelako tailerrak egiten, eta horiek jarraitzeko asmoa daukate ikasturte honetan ere. Azken batean, euskaraz berba egiteko topagunea eskaini gura dute, eta horretarako, jendea erakartzen duten gaiak jorratzen dituzte. Segi azkar beraz, ikastaroa hastear dago eta! ○

Informazio gehiago: www.berbots.org, eta izena emateko: 630 404 171 edo berbotserandio@telepolis.com

ITSASADARREKO HAINBAT IKUSPEGI ARTISAUTZA ARETOAN

Alberdi galeria zabaldu barri du Artisautza Zentroak, Ibaizabal itsasadarreko ikuspegien pintura eta eskultura erakusketa batez. Hamabost begirada dira, beste hainbat artistenak. Ballesteros, Zalbidea, Richard, Cristina Diez, Guillermo Llaguno, Paola de Miguel, Javier Ordoñez, Marta Camiña, Rafa Legorburu, Eskerri, Javier Camara, Ana Ortiz de Villalba, Ezkerra, Olatz Candina eta Jon Alberdi bera dira, Erandioko Artisautza Zentroko sortzaileak. Olio, akrilikoa, akuarela, ikatz-ziria eta sanginaz egin dituzte margoak. Eskulturarako, barriz, burdin forja, brontzea, terrakota edota hormigoia erabili dute. Azaroaren 26a arte dago erakusketa ikusteko parada.

Non: Erandio Artisautza Zentroa Erandioko Erribera kalea, 6-7

ORUBEAK PARKING GISA ERABILTZEA PROPOSATU DU PSE-EE-K

Etxebizitzak eraiki bitartean, hutsik dauden orubeak aldi baterako parking gisa erabiltzeko proposamena egin du PSE-EEK Udaletxean. Juan Otermin alderdiko bozaremaleak azaldu duenez, erandiotar askoren keuxak jaso dituzte, gero eta zailago delako autoa uzteko tokia topatzea herriko zenbait gunetan, bereziki Altzagan eta Astrabuduan. Are larriagoa ei da arazoa ordu jakinetan, 18:00etatik aurrera astean zehar eta jaiegunetan. Horregatik eskatu du PSE-EEK etxebizitzak eraikitzeko orube guztiak erabiltzeko, etxeak egiten hasi bitartean. Astrabuduko orube bat aipatu du adibidetzat, Karl Marx eta Txakurzulo kaleen artean kokatuta dagoena. Oterminek esan duenez, “*beharrezkoa da guztion artean gisa honetako neurriak abiatzea, argi baitago arazoak udal gobernuaren erantzuteko ahalmena gainditu duela*”.



Basolanak

- Zuhaitzen landaketa
- Podak
- Itxierak
- Garbiketak
- Tratamendu fitosanitarioak

Lorategien zainketa
DEITU!

T. 94 467 17 13

F. 94 467 42 41

ERANDIO (Bizkaia)

Mobila

Asier: 629 411 838

e-posta: basolanak@terra.es

Nahi duzun lekura iristeko arazoak dituzu?



Etxebizitetarako igogailuak
Eskailera igogailuak
Plataformak



Arazoei agur... **902 54 08 54**

www.arlan.biz

ORAINDIK BADAGO AUKERA ITZARTUREN IKASTAROETAN IZENA EMATEKO

Emakumeentzako autodefentsa eta haurrentzako margolaritza ikastaroak antolatu ditu Itzartu taldeak. Azaroan hasiko dira, oraindik badago izena emateko aukera. Autodefentsa hilaren 17tik 21era irakatsiko dute udaleko erakusketara aretoan, 18:00ak eta 20:00ak artean. Hogei emakumerentzako lekua daukate. Ikastaro hori azaroaren 25ari begira antolatu dute, Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Eguna. Umeentzako margolaritza ikastaroa, osterara, barikuetan eskainiko dute Los Angelesko lokalean, 17:00etatik 19:00etara. Itzartu emakumeen kultur elkarteak da, hainbat ikastaro antolatu ohi ditu urte osoan, batzuk elkarteko kideentzako soilik, eta besteak, berdintasun Planaren barnean antolatzen dituztenak, sopoloztar guztiei irekiak, gizonei zein emakumei. Iraupena ere, gaiaren araberakoa izan ohi da. Emakumeentzako lan egiten dute Itzartukoek, baita gizon eta emakumeen arteko parekidetasuna lortzeko ere; 1991tik lanean dabiltza.

Izena emateko Udaletzeko Hall Kulturalera edo Itzarturen lokalera gerturatu: Landa Doktorea kalea, 3



Agur makalak!
Haltzak landatuko dituzte Urkon makalen orde, gaixo daude eta



Urkoko makaleta

Gaixo daude. Bizkaiko Foru Aldundiak eta Euskal Herriko Unibertsitateko Landareen Fisiologiaren Departamenduak egin duten ikerketak dioenez, makalak “oso hondatuta daude zuhaitz kopuru handiarengatik, eta zainketa lan urriarengatik”. Horregatik botako dituzte, eta haltzek, zein lizarrek ordezkatu dituzte, apurka-apurka. Urko inguruko berdeguneak berreskuratu gura ditu Udalak, “ibai bazterretan ohikoak izan diren landareei lehentasuna emanez”.

Fase bitan egingo dute, aldaketa egin bitartean, sopoloztarrek zelaia erabil dezaten, eta beraz, barbakoak dauden inguruko griz-

pea bere horretan utziko dute. Horrela, udazkenean eta neguan ekingo diote lehenengo faseari; azaleraren erdiari eragingo dio. Azaroan moztuko dituzte futbol zelaira doan bidean dauden makalak. Ondoren, lurra prestatuko dute, urtarrilean zuhaitz barriak landatzeko.

Haltzak eta lizarrek izango dira landatuko dituzten zuhaitz gehienak, baina astigarrrak, hurritzak, haritzak, ezkiak, gereziondoak eta zumarrak ere jarriko dituzte. Bigarren fasea bost urteko epean egingo dute, lehenengo fasean landatzera doazen zuhaitz motek duten bilakaeraren arabera. ○

Iker Añon > Ugeraga Saskibalo Taldea

“Txikien eskolak sortzen gabiltza eta garrantzitsua da, harrobia behar baitugu”



Iker Añon, Ugeragako emakumeen taldeagaz

Ugeraga saskibalo talde biek maila igo dute, emakumeenak eta gizonenak. Iker Añon Ugeragako presidente eta entrenatzaileak gogoan dauka lehenengo taldea lagunaren artean sortu zutela, duela 17 urte.

—**Nagusien talde biek maila igo dute, kasualitatea?**

—Beno, neskak zazpigarren geratu ziren iaz, eta postu hori ez da aski maila igotzeko. Baina beste talde batzuek ez dute gura izan maila aldatu, eta horregatik igo da gure taldea. Mutilek, osterara, lehen postua lortu zuten, beraz garbi zegoen igo behar zutela. Horregatik igo dira talde biak.

—**Espero zenuten?**

—Ez, ez. Gu hasi ginenean hamar ginen, lagunarteko kontua. Mutilak bakarrik ginen. Sorreran bestelako aukera eskaini gura genien auzokideei, futbolaz gainera. Denbora joan eta denbora etorri, jadanik ehun lagun gara Ugeragan, zortzi talde dauzkagu, eta neskek zein mutilek jokatzen dute, onak dira eta hortxe gabiltza.

—**Jendea erakarriko al du?**

—Baietz uste dugu, baina egia esan, jadanik lau partida jokatu dituzte, bai nesken eta bai mutilen taldeek, eta jende gitxi etorri da ikustera. Ea animatzen diren.

—**Haurrentzako eskola sortzen zabilzate.**

—Bai, Ander Deuna ikastolan gu geu gabiltza entrenatzen, eta hogeitik gora neska-mutil dauzkagu. Orain, Zipiriñe eskolan horrelako zerbait sortzeko lanean gabiltza, baina momentuz negoziatzen gabiltza. Orain lan egin behar dugu, ea jendea partidak ikustera animatzen den. Hori

«Sorreran lagunarteko kontua zen, orain ehun lagun gara eta zortzi talde»

eta txikien eskola garrantzitsuak dira, harrobia behar baitugu.

—**Lana bai, baina maila igotzeagaz batera, dirua ere gehiago beharko duzue, ezta?**

—Bai, askoz gehiago behar dugu. Bidaiak, fitxak... ia-ia bikoiztu dugu aurrekontua. Txosna, laguntzak eta babesleak ditugu, baina ez da erraza; horretan gabiltza. ○

LAIKAK Taberna
Bentatu, 2
48600 Sopela
Tlf. 94 676 03 28

Egunkariak
prentsa eta aldizkariak
nahi izanez gero,
etxera eramaten dizugu
egunkaria!!!
Algortako etorbidea, 78
T.: 94 491 27 34

DIDAK hAMILTON
IDIOMAS
Ingelesa, Frantsesa eta Alemana
• Taldeak, enpresak eta partikularrak
• Eskolaz kanpoko ekintzak
• Maila guztiak
• Ingelesa 3 urteko aurrera
• Talde txikiak
• Ingalaterran eta Estatu Batuetan egonaldiak
Dr. Landa, 6 / 48600 Sopela.
Tel: 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

4 bide
pinturak
RIPOLIN
BONDEX
DYRUP
Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturribarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

ANDER DEVNA
IKASTOLA
• Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
• Irakaskuntza eta hezkuntza
• Informazioa eta partaidetza
• Eleaniztasuna
• Esperientzia eta berrikuntza
Gatzarrine z/g. SOPELANA
Tfnoa.: 94 676 02 66
Email.: sopela@ikastola.net

ABENDUAN ZABALDUKO DUTE HAURENTZAKO UDAL LIBURUTEGIA

Berangoeta Kultur Etxean eraikitzen dabilta haurrentzako liburutegia, 3 eta 12 urte bitartekoentzat. Abenduan zabalduko dute, lanak amaitu bezain laster. Umeei zuzendutako 3.000 liburu izango ditu, eta hiru eremutan banatuko dute. Gehienak ipuinak izango dira, baina komikiak, CDak eta DVDak ere eskuragarri egongo dira. Gainera, jolas didaktikoak izango dituen ordenagailua jarriko dute. Altzariak ere haurrentzako egokiak izango ei dira, eta alfonbra bat ipiniko dute, ipuin kontalariak doazenean haren gainean esertzeko. Izan ere, ipuin kontalariak, txotxongiloak eta antzerki saioak ere antolatuko gura dituzte liburutegian, eta oportetan saio bereziak.

UMEENTZAKO JOLAS INTERAKTIBOAK BERANGOETA PARKEAN

Smartus deituko da haurrentzako jolas-gune interaktiboa, Berangoeta parkean kokatuko dutena; urte amaieratik aurrera jolastu eta ariketa fisikoak egin ahal izango dituzte umeei. Zehazki, ordenagailu batez konektatuko dute baldosazko zoru eta hainbat pibota. Hartara, lasterka egin, mugitu edo salto egin beharko dute umeei, toki jakinak ukituz erantzunak igartzeko. Berangoetakoaz gainera, Ricardo Otxoa parkea barritzeko asmoa dauka Udalak, baita Santa Anan jolas-gune barria ipintzeko ere. Kultur Etxetik gertu kokatuko dute.

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

Hartu makila, ekin bideari!
Badator Sei-herri Kultur Elkartearen **ibilaldi neurtua**, azaroaren 16an, domekaz, egingo dute



Muñarrikolarako bidea; bertatik igaroko da ibilaldia

Sei-herritik sei-herriera. Motxila eta kantinplora prest, hartu makila eta aurrera! Azaroaren 16an, domekan, egingo dute aurreten Sei-herri herriko tabernako kultur elkartearen ibilaldi neurtua. Helduek, hamalau kilometro, eta umeei, zortzi. Goizeko 08:15ean eman behar dute izena lehenek, eta 09:00etan abiatuko dira. Umeei, aldiz, 09:00etan eman beharko dute izena, eta 09:30ean ekin.

Izerdi egin ondoren elkarregaz bazkalduko dute frontoian, baina aurretik, umeentzako jolasak antolatu dituzte. Bapote egin eta 18:00ak aldera hasiko dira sariak banatzen.

Duela 26 urte egin zuten lehenbiziko ibilaldi neurtua Sei-herrikoek. Apurka-apurka ohitura bihurtu da, galdu ezineko hitzordua. Gaur egun 90 bat bikotek parte hartzen du nagusien mailan, eta 25 inguruk umeen mailan. Gainera, ekimen herritarra dela nabarmendu dute antolatzaileek. Izan ere, herriko komertzioek lagundu ei dute, batzuk diruz, eta besteek, sarietarako materialez. Horiek guztiak gogoan izan dituzte antolatzaileek, eta eskerrak eman gura izan dizkiete.

Presak barik, baina erritmo onean egin behar ei da ibilaldia. Beraz, has zaitzete giharrek luzatzen. Nork jasoko du txapela? ○

AIXERROTA BHI
24 URTE EUSKARAZ IRAKASTEN

- TEKNOLOGIKOAK
- BATXILERGOAK
- NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / 94 491 17 86

Denon-Art Kultur Elkarte > Birziklapena, Artea eta Diseinua

“Objektu birziklatuakaz gauza ederrak sor daitezkeela erakutsi nahi dugu”



Dolo Navas, Marivi Carro eta Lourdes Arrillaga, Denon-Art elkarteak kideak

Zortzi emakumek osatzen dute Denon-Art Kultur Elkarte: Odei Benito (Gorliz), Leire Fernandez (Areeta), Rosa Martinez (Gorliz), Marivi Carro (Plentzia), “Miss Lata” (Berlin), Idoia Elozegi (Donostia), Dolo Navas (Gorliz) eta Lourdes Arrillaga (Gorliz). Uztailaren jarri zuten martxan egitasmoa, Iberre plazako lokala zabaldu zuten. Bertan erakusketa gela eta tailerra daukate. Euren helburu nagusia etxean gordeta ditugun gauza zaharrak edo zaborretara botatzeko ditugunak, artelanak osatzeko erabil daitezkeela erakustea da, objektuen birziklapena bultzatzea: “Geroz eta jende gehiagok erabiltzen du birziklapena artelanak sortzeko teknika bezala, masa ekoizpean ere bai”. Diziplina ezberdinetatik badatoz ere (bitxigintza, diseinua eta eskultura, besteak beste), sortzeko gogoak batu ditu elkarteak kideak.

Abendura arte *Urez blai-bai* erakusketa egongo da ikusgai Denon-Art-eko loka-

lean. Urarekin harremana duten elementuak osatzen dute erakusketa, eta hainbat artistak hartu du parte. Eskultura, lanparak, musika... danetarik daukate: “*Esparru asko ukitzen ditugu; masajeak egiteko txoko bat ere badaukagu. Elementu guztiak lotzen dituen aria natura da*”. Hau bukatutakotan, oparientzako bilgarri buruzko erakusketa antolatzeko asmoa daukate:

«Etorkizunean, ikastaroak antolatzeko asmoa daukagu»

“Ahalik eta jende gehien hurbiltzea gura genuke; herriko jendearentzako bilgune izatea. Gorlizen teknika bat edo beste erabiliz artelanak sortzen dituen jende asko dago”. Oraindik denbora behar badute ere, etorkizunean umeentzako eta nagusientzako tailerrak antolatzeko asmoa daukate. Gainera, lepokoak, bitxiak eta jantziak konpontzen dituzte. ○



TXIBERRI
e d a n t o k i a
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
T: 94 676 07 15

BASTARTENA

URDULIZ

Teléfono: 946 761 128

Ajuria
taberna

Andrés Cortina 2
ALGORTA



Taberna Berri
Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf.: 944 306 493

VIEJO CAFE

kopak eta giro jatorra

Alangobarri, 4 Tel. 94 460 30 03
ALGORTA

TOPONIMIA LANA AZALTZEKO BATZARRA

Azaroaren 6an Gorlizko toponimia lana azaltzeko batzarra egingo dute pleno aretoan arrastiko 19:00etan. Honetan, Alain Romaña eta Egoitz Olabarrieta gazteek herriko toponimia aztertze azken urtean egindako lana azaltzeaz gain, herritarren laguntza eskatuko dute. Orain arte, hainbat artxibategitako agirietatik lortu dute informazioa; baina, hemendik aurrera, herritarren testigantzen bitartez lortu gura dute. Bileran, Udal ordezkariak, Euskara Zerbitzuko teknikaria eta Euskaltzaindiko adituak egongo dira gazte biek batera.

URDULIZKO BIZTANLERIA BIKOIZTU EGINGO DA DATOZEN URTEOTAN

Datozen urteotan, bikoiztu egingo da Urdulizko biztanleria, Lurraldeko Zati Planari (LZP) jarraituz, egiten ari diren etxebizitzak direla eta. 2.000 etxebizitza eraikiko dira, eta horietako 400 babes ofizialekoak izango dira. Gauzak horrela, 8.000 biztanle izatera helduko da udalerria.

AREILZA MEDIKUAREN ESTATUA MUGITUKO DUTE

Gorlizko hondartza handitzeko, eta berezko forma berreskuratzeko burutzen ari diren lanak direla eta, Ospitalearen parean dagoen Areilza medikuaren estatua mugituko dute. Lanak amaitutakoan, Astondora eramango dute, 1919an atek zabaldu zituen ospitaleko bultzatzailearen estatua.

URDULIZ

Euskaragaz olgatzeko eta ondo pasatzeko ikastaroa



Urdulizko Kultur Etxean izango da ikastaroa

Haserretu, adarra jo eta ligatu euskaraz ere egin daitekeelako, "Lagunarteko Hizkerarekin Jolasean" ikastaroa antolatu dute Urdulizko Udalak eta Uribe Kostako Mankomunitateak herriko gazteei euskara-ko erregistro kolokiala irakasteko. Ikastaroan izena emateko epea azaroaren 7a arte egongo da zabalik; eskolak hil bereko barikuetan izango dira Kultur Etxean, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara.

Lasarte-Oriako Ttakun Elkarteko lagunek eta Urtxintxa Eskolak elkarlanean

garatutako egitasmoa da "Lagunarteko Hizkerarekin Jolasean". Gazteek hizkuntzagaz jolastu eta ondo pasa dezatela lortu gura dute egitasmoaren bultzatzaileek. Metodologia erabat dinamikoa eta parte-hartzailea erabiltzen dute. Gazteen esamoldeetatik abiatuz, jolas, antzerki eta dinamiken bitartez lan egiten dute. Ikastaroa dohainik izango da, eta parte hartzen dutenei hainbat esamolde biltzen dituen *Hitzontzia* liburuxka banatuko diete.

Informazio gehiago: 94 676 26 74

Aza. 3 - Aza. 17

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tel.: 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

URDULIZ

► **Iker Zirizaren diaporama.**
Azaroaren 4an, 18:00etan, Kultur Etxean.

LEIOA

► **Picassoren emakumeak.**
Azaroaren 4tik 30era, Kultur Leioako erakusketa aretoan.

GETXO

► **Emakume izena du Saharak.**
Erromoko erakustaretoan, azaroaren 10etik 15era.

MUSIKA

ERANDIO

► **Poesia eta musika emanaldia.**
Astrabuduko Kultur Etxean.
Azaroaren 8an, 19:30ean, doan.
► **Zarzuclaren antologia.**
Azaroaren 15ean, 19:30ean,
Astrabuduko Kultur Etxean, sarrera gonbidapenagaz.
► **Dantzaldia orkestragaz.**
Azaroaren 9an, 17:30etik 20:30era,
Altzagako azoka zaharrea.

LEIOA

► **Arto Tunçboyacıyan (Armenia). Munduko musikak zikloa.**
Azaroaren 14an, 21:00etan, Kultur Leioako Auditoriumen. 12 euro.

ZINEMA

ERANDIO

► **La momia 3. La tumba del emperador dragon.**
Azaroaren 14an, 20:00etan,
Arriagako eskoletan, doan.

GORLIZ

► **Lurralde lainotsurako bidaia.**
Azaroaren 9an, 17:00etan,
erakusgelan.



Gastronomia zein artisautza produktuak erosteko aukera izango da Leioan

► Azoka Leioan

Artisautza eta Gastronomia azoka, azaroaren 8an eta 9an

Ikus zein gastronomia-plazeren azoka legez bataiatu du Udaletxeak artisautza eta gastronomia azoka. Urtero egin ohi dute eta jadanik XXIX. ediziora iritsi da. Guztira 30 bat postu jarriko dituzte Boulevard inguruan, leioaztarentzako gozagari. Artisautzaren artean zeramika, egur eta harri tailua, otzaragintza, forjaketa, ehungintza eta musika-tresnak egongo dira ikusgai, besteak beste. Gastronomiari dagokionez, Idiazabal gazta, sagardoa, Errioxako ardoa, txakolina, olio, ogia, euskal pastela, pateak, gozokiak, itsasoko produktuak... denetarik dastatzeko aukera izango da. Azoka 10:30etatik 14:30era eta 17:00etatik 21:00etara zabalduko dute, eta sarrera doakoa izango da.

• **Non:** Leioako Boulevarden • **Noiz:** Azaroaren 8an eta 9an

ANTZERKIA

PLENTZIA

► **Palascarra y un camino.** Ekoma Teatro antzerki taldea.
Azaroaren 14an, 19:30etan Goñi Portalen, doan. "Mugagabe - arte guztiak guztiarentzat" zirkuitua.

LEIOA

► **¿Se puede?**

Azaroaren 7an, 20:30ean, Kultur Leioako Auditoriumen. 12 euro.

► Nora zoaz Txanogorritxu. Antzerki familiarra zikloa.

Azaroaren 16an, 12:00etan, Kultur Leioako Auditoriumen. 4 euro.

GETXO

► **Koldo Amestoy ipuin kontalaria.**
Iparra galdu gabe jardunaldiak.
Azaroaren 6an, Geroa eskolan,
18:00etan. Doan.

BESTEAK

BARRIKA

► **Dantza eta Kung Fu.**
Azaroaren 8an eta 15ean, 11:00etatik 13:00etara, Udaletxean.

► Umeskola.

Azaroaren 11an, 10:30etik 12:30era Udaletxean (liburutegi zaharrea).

BERANGO

► **Txangoa eta herri-bazkaria.**
Karabi Azpi erretiratuen elkarteak antolatuta, azaroaren 7an.

ERANDIO

► **Ipuin eta Bertso Paper lehiaketak.**

Lanak aurkezteko epea zabalik azaroaren 27ra arte.

► Valentziara bidaia.

Abenduaren 5etik 8ra, baina izena eman behar da azaroaren 6tik 14ra, Gazte Informazio Bulegoan.

PLENTZIA

► **Kulturartekotasuna astialdian ikastaroa.** Azaroaren 6an, 13an, 20an eta 27an, Goñi Portalen.

GORLIZ

► **Gorlizko toponimia lana azaltzeko batzarra.**

Azaroaren 6an, 19:00etan, Udaletxeko Bilkura Gelan.

LEMOIZ

► **Poteo euskalduna.**

Hilabetero, bariku batean euskaraz bizi, 19:15ean, Kultur Etxeko azpikaldean.

SOPELA

► **Pilota partidak.** Barikuro eta zapaturo pilotalekuan, 18:30ean.

GETXO

► **Bertsolariak: VI. Bihotza gazte.**
Azaroaren 7an, Algortako The Piper's Irish Puben, 21:00etan, doan. Mikel Mendizabal, Iñaki Murua eta Kupela taldea.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA

VASA



KLIMATIZAZIO

INGENIARITZA

INSTALAZIOA

MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114

48640 Berango, Bizkaia

Tel. 94 668 15 51

Faxa. 94 66829 92

e-mail: vasa@vasa.biz



ADITUAK GARA PINTXO ETA BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA



GETXOPHOTO EHU

Urriaren 12an Getxori gero arte esan zieten GETXOPHOTO jaialdiko argazkiek, datorren urtera arte behintzat. Baina ezin agur osoa esan eta Leioan geratu dira apur batez, Euskal Herriko Unibertsitateak herrian daukan kanpusean. Dionisio Gonzalez, Fernando Maquieira, Cecilia Paredes, Sammy Baloji eta Philip Kwaneren argazkiak ikus daitezke hainbat eraikinetik zintzilik. Milaka ikasleren begiek ikusten dabiltzana ekarri dugu UKren orriotara, zuon guztion begirada aurrera.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





Usategi

Algortako Usategiko labarren bista ederra dugu hauxe. XX. mendeko lehen erdialdekoa da. Izan ere, 1953an hasi ziren betetzen Portu Zaharretik Usategi azpira doan itsaso tartea, 17.705 metro koadro. Argazkian, ordea, tarte hori ez dago beteta. Usategiko labarren gainean ikus daitezke antzinako bateria, labarraren erdi-erdian, eta bolborategia, egungo Usategi kafetegia. Badirudi behealdean ageri den txalupatik atara zutela argazkia.

[berbetan]

Euskal Kultur Erakundeko (EKE) zuzendari dugu Pantxoa Etchegoin (Jatsu, Nafarroa Beherea, 1960). Euskarazko antzerkigintzan aditua, EKEren sorreran lan egin zuen 1990ean. Merkataritza ikasi zuen, baita masterra euskal ikasketak egin ere, Baionako unibertsitatean. Bertako Merkatal Ganbarako langile izan zen, 1997an EKEren zuzendaritza hartu arte. Euskal kultura bultzatzeko xedea dauka erakundeak, eta Getxoko *Iparra galdu gabe* jardunaldiak antolatu ditu, hirugarrenez, Udalarekin batera. Urriaren 24an ekin zioten jardunaldiei, eta azaroaren 9ra bitarte egongo da Ipar Euskal Herriaz zerbait gehiago ikasteko Algortan.

Pantxoa Etchegoin

Mugak apurtuz

Testua: **Zuberoa Iturburu** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—*Iparra galdu gabe* jardunaldiak ospatu berri dira Getxon, Udalarekin batera.

—Bai, Udalarekin partaidetzan izan da. Duela zortzi urte egiten ditugu trukaketak Getxoko Udalarekin, eta bereziki, euskara zerbitzuarekin. Kantuketan erakusketarekin hasi ginen, eta geroztik, hainbat ekitaldi egin ditugu. Gainera, bi urtetarik egiten dugu *Iparra galdu gabe* programa. Hirugarrena izan da aurtengo edizioa. Nonbait helburua da iparraldeko artista eta kulturaren ezagutaraztea Getxon.

—Bizkaian horrelako zerbait egiteari zer deritzozu?

—Nik uste dut oso garrantzitsua dela. Euskal Kultur Erakunde bezala, badira urte batzuk hitzarmen bat badaukagula Eusko Jaurlaritzarekin, trukaketa kulturalak garatzeko. Oso garrantzitsua da, zeren holako ekintza konkretuek, nonbait, dauzkagun muga psikologikoak gainditzeko helburua daukate, zeren normalki fisikoki ez da mugarik. Bistan da orain zabaldu behar dela beste hiri batzuetara. Baditugu holako trukaketa batzuk Andoainekin, Gipuz-

koako Jaurlaritzako Koldo Mitxelena Liburutegiarekin, Bilborekin ere bai... Baina behar ditugu oraino garatu, hain zuzen euskal kultura gurutza dadin eta ibil dadin, bai iparraldean eta bai hegoaldean.

—Nafarroa Garaiko gobernuarekin zailgoa da?

—Erran behar da lehenik, duela urte andana bagenituela harreman batzuk Nafarroako Gobernamentuarekin, eta bagenituen trukaketak duela hamar urte baino gehiago. Egun egia da harreman guttiago dugula. Hala ere, badugu harre-

—Euskarazko kultur ikuskizunak gehiago izaten dira hegoaldeari begira; esan duzun bezala, ez da muga fisikoa?

—Badugu gure baitan sartuta muga psikologiko hori, eta guk garrantzitsutzat atzemaiten dugu holako harremanak kultura aldetik. Baina dudarik gabe beste alor batzuetan badugu lana egiteko oraino, adibidez komunikabideen sailarekin. Baditugu harreman batzuk pixkanaka alor desberdinetan, baina bada anitz egiteko iparraldeko informazioa gehiago zabaltzeko hegoaldean. Itzaleko eta eguneroko lana da.

“Muga psikologikoa badugu gure baitan sartuta, eta garrantzitsutzat atzemaiten dugu harremanak kultura aldetik”

mana orain bertan Nafarroako Unibertsitatearekin, ahozko memoriaren bilketari buruz. Gero, *Batek mila, euskal munduak* erakusketa joanen da Getxotik landa Iruñera. Beraz, baditugu harreman batzuk, baina behar ditugu normalizatu eta urrunago joan Nafarroarekin.

—Iparraldeko kultur jarduerak hegoaldean duen oihartzuna folklore hutsean geratzen al da?

—Ez dut uste. Beno, hemen frantzes medio batzuk hartzen dituzu, eta maiz gure kultura agertzen da karta postal batean bezala, oso itxia, zaharkitua, betiko iru-



diekin... Gu saiatzen gara erakusten eskual kultura modernoa, gaur egiten den kultura bizia, ez bakarrik atzokoa; atzokoa oinarrituta gaurko egiten diren sorkuntzak.

—**Eta Frantziako erakundeen barnean nola kokatzen da zuen lana, beraz?**

—Gure elkarte pixka bat berezia da, zeren gure barnean badira 110 bat elkartekide, eta gure diru-emaileak dira Frantziako Kultur Ministeritza, hemengo Kontseilu Orokorra, zuen diputazioaren antzekoa, baita Akitaniako Eskualdea ere, eta gero guretako garrantzitsua dena, hemengo udalek laguntzen dutela EKE, bai diru aldetik, eta ere nonbait emaiten dutela morala egiten dugun lanari. Iparralde oso txikia da konparatuz Frantziako beste departamendu batzueri, bainan guk badugu nonbait suertea, ber denboran izaita kultura mundukoan eta erakundeen artean dagoen erakunde. Ez da batere erraza gure lana, proiektu batzuen eratzeko eta partaidetza batzuk egiteko elkarten eta erakunde publikoan artean, erdian baigira.

—**Egiteko nagusia duzue, beraz, Ipar Euskal Herrian euskal kultura sustatzea, baina nola?**

—Guk baditugu alor desberdinak. Lehenik, laguntzen ditugu elkarteak beren eguneroko ekintzetan, sorkuntzan, formakuntzan edo hedapenean. Eta gero, baditugu gure ekintza propioak. 2000. urte inguruan ukan ginuen *Kantuketan* programa kantuararen inguruan. Egin genituen hainbat ekintza, egin genuen erakusketa bat, trukaketa kultural batzuk. Badugu beste sail garrantzitsu bat guretako, ondare saila, ahozko oroimenari buruzkoa. Eta gero, bistan dena, guk behar dugu ere kontuan hartu pixka bat iparraldeko errealitatea. Alde batetik, erakusketa hori, Getxon ikusi duzuen, sartzen da programa zabalago baten barruan, *Batek mila* izena duena. Hor xedea da ber denboran erakustea Eskual Herrian badugula kultura, eta bereziki, gure hizkuntza, eskuara dena, eta beraz, baloratu behar duguna, transmititu behar duguna gure belaunaldi berriez. Eta

gero, badugu lan handia egiteko hedapenari buruz eta publiko berriengana joateko. Jakin behar da gutti gorabehera hemen, iparraldean, badirela %70 ez direnak eskualdunak, aintz kanpotiar badator hunat. Gogoeta behar dugu eraman, jakitea nola sarrarazten dugun jende horiek eskual kulturari. Badira batzuk nahi dutenak integratu eta ez direnak eskuaradunak. —**Hego Euskal Herrian egiten diren kon-**

“EKE sortu zenean eskual kultura bizi-bizirik zegoen; halere, behar zen egituratu, elkarte ttikien laguntzeko”

tuak ere islatzen dituzue Lapurdin, Baxenafarroan eta Xiberoan?

—Saiatzen gira bi zentzutara lan egitea, hemengo artistak joaitea hegoaldera, baina ere, hango batzuk ekarraraztea hunat. Gu ez gira zuzenki antolatzaile bakarrak, baina partaidetzak egiten ditugu hemengo egitura batzuekin. Exenplu bat emaiteko, duela bi egun Bordelen, Frantzian, gure erakusketa han zegoen eta karia hontarat eraman ditugu Oreka TXko musikariak. Egin duten filma aurkeztu dute Bordeleko zinema batean, nolaz bazen ere azpituilua frantsesez, aurkeztu dute. Gero, beraiek heldu dira kontzertu ttiki baten egitera. Hori ere bada gure xedea, hegoaldeko artistak ekarraraztea hunat, iparralderat.

—**EKE 90.ean sortu zen, nolako egoera bizi zuen euskal kulturak orduan? Zergatik sortu zen?**

“Kulturak eta eskuarak hazten dute elkar, ez dut uste eskual kulturarik izan daitekeen eskuararik gabe”

—Ni sortzaile naiz denbora horietan, zeren antzerkia egiten nuen Xirristi Mirrizti taldean, antzerki amateurra egiten nuen. Baziren aintz talde antzerki mailan, dantza mailan, musika mailan, ondarean... Erran nezake, iparraldean kultur elkarte

ainitz bada, batzuk profesionalak direnak, beste batzuk erdi-profesionalak, eta beste batzuk, amateurrak direnak edo musutruk egiten dutenak beren ekitaldiak. Denbora haietan ere, bazen konfederazio bat izena zuena Pizkundera. Hor biltzen ginen eskuararen eta eskual kulturaren alde ari ginen elkarteak. Garai hartan baziren jadanik gau-eskolak, AEK, Euskal Herrian Euskaraz, Izatiak... Konfederazioaren

xedea zen eskual kulturaren aldeko erakunde ttiki bat sortzea. EKE sortu zen bi arrazoirengatik. Egia da elkarteek indar handia egin zutela erakunde sor zedin, nonbait arartekolaritza egiteko ere elkarte horien eta erakundeen artean. Hori zen xede bat. Eta gero, ekimen politiko bat izan da, bai estadoak, bai aipatu ditudan beste erakunde publikoek ere, erabakia hartu zuten EKE sortzea. Eskual kultura bizi-bizirik zegoen; halere, behar zen egituratu. Hori ere izan da erakundearen xedea, eta saiatzea partaidetzako lanak egitea. Denbora haietan inportantea zen holako egitura bat sortzea elkarte ttikien laguntzeko. Gaur egun, bide berriak badira, ez da egoera bera, panorama kanbiatu da.

—**Gaur egun beraz, nola dago panorama hori?**

—Nahiko baikorra naiz, baina ber denbo-

ran errealista naiz ere. Dударik ez eskuararen egoera kezagarria dela iparraldean, Eskual Herri osoan funtsean, baina bereziki iparraldean, zeren azken inkestak erraiten badu ere, gaztetan badela hobetze bat zifra aldetik, oraino nahiko zifra apalak

dira, %20 azpitik baitira. Eskual Herrian, arazorik haundiena ez da eskuararen ezagutza; erabilera da. Hori helburu haundi bat da, eskuara nahi badugu biziarazi. Baina gauza baikor batzuk ageri dira, badira jendeen atxikimendua joanago eta haundiago eskuarari buruz. Geroari begira bada esperantzaren leiho bat. Egiten dira indar bereziak, eta bistan da behar dela urrunago joan, eta egiazki politika bolontarista bat finkatu, zeren bestela eskuara arrisku haundian da. Alde batetik behar da borondate politiko haundia eta gero, dudarik ez, eskualdunek behar dute gehiago erabili eskuara, erabilera baita arazorik haundiena. Gero eskual kultura bera hartzen bada, bada dinamika haundi bat, badira sorkuntzak musika eta antzerkian, bertsolaritza nola arrapizten ari den iparraldean, holako

exenpluek esperantza emaiten didate, eskual kulturak baitu ere eskuara bizi-razten. Biek hazten dute elkar. Halere, kasu egin behar da, zeren nahiko zaila da eskual kulturaz mintzatzea eskuara ez baldin bada eskual kulturaren arroina edo arragoa. Ez dut pentsatzen eskual kulturarik izan daitekeenik eskuararik gabe.

—**Beraz, aurrerantzean zer dago egiteko?**

“Eskual kultura jendeak egiten du, ez erakundeek, gure lana da elkarteak laguntzea; politika komuna behar da”

—Aintz lan badugu egiteko, bereziki transmisioari buruz. Behar dugu eskual kulturaren kiria, maitasuna helarazi ere gure haurreri eta gazteeri. Behar dugu

elgar gurutzatu, gazteekin gehiago lan egin. Beren nahiak zein diren ikusi behar dugu. Biziki lan luzea da, baina egin beharrekoa. Eskual kulturaren geroa gure haurretan eta gure gazteetan ikusten dut. Etorkizunean programa bat jarriko dugu martxan helburu horrekin Euskal Kultur Erakundearen.

—**Eta erakundeek, zer dute egiteko?**

—Eskual kultura jendeak egiten du,

artistek eta elkarteek, ez erakundeek. Gure lana da EKE bezala elkarte horiek laguntzea eta lan komun bat egitea. Politika komuna behar da. o

aldizkaria **etxean** jaso nahi baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena.....Deiturak.....
 Kalea & zenb.....Herria.....
 e-mail.....Telefonoa.....

Urtero 20 euro 30 euro 50 euro beste kopuru bat euro
 Kontu zenbakia (20 digito).

□□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa / 48991 Gebro / uk@aldizkaria.biz / tel.: 94 491 13 37



Prestes Maia, 911zbk.

Sao Pauloko erdigunean dagoen Prestes Maia etorbideko 911. zenbakian, bloke biko eraikin erraldoi bat nabarmentzen da. Eraikina MSTC-k (Etixerik Gabekoen Mugimendua) okupatu du. Okupazio hau salbuespena da, eta beharbada aurrekari bat Brasilgo gaur egungo historian. Bertan bizi diren familiak Sao Pauloko udalagaz elkarrizketa egokia mantentzeko gai izan dira lau urtez. Udal zuzendaritza barriak kargua hartu duenetik, zentroaren suspertzea hartu du ikur bezala, eta bertan ehunka polizia eta inspektore sartu dira. Etxe deitzen duten tokia uztera behartuta, eraikin honetan bizi diren 1.200 pertsonak etorkizunerako esperantzarik gabeko egoera latzean daude.

Argazkiak: **Julio Bittencourt**









I

Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 T: 430 23 45
Telletxe 1 T: 460 27 41

Algorta

OSABIDE HORTZ KLINIKA
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina
ALGORTA
94 430 76 96

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarrí 10
T: 4910821
ALGORTA

HARTU TXANDA


GAVRKO

GIZONENTZAKO
MODA

Telletxe 5
ALGORTA
T: 4607084

[zinema]

Beste behin, oihala gora! Euskal Zine eta Bideo Bilera lehiaketa- jaialdia hilaren 17tik 22ra Lekeition



Emanaldiak 19:30ean izango dira Ikusgarri aretoan
Informazio gehiago: www.bideobilera.com

Urteen joanean 31.a beteko du aurten Lekeitioko Euskal Zine eta Bideo Bilera lehiaketa-jaialdia. 1978an sortu zenetik euskarazko ikus-entzunezko lanen sehaska, eta zinegile gazteen harrobi izan da; eta hala izaten jarraitzeko ahalegin berezia egingo dute aurten ere. Izan ere, laguntza eta babes batez ere ekonomikoen faltaren ondorioz, ekitaldia bertan behera utziko zutela zioen barriak, barrua ziztatu zigun otsail aldean; eskerrak, behingogatik zekorrari adarretatik heldu ziotela antolatzaileek, herritarrek eta batez ere erakundeek. Hala, Benito An-

solaren eta J. L. de la Torreren ekimenez antolatzen hasitako ekimenak euskarazko ikus-entzunezko lan laburren topagune izaten jarraituko du, 31. urteurrena ospatuz.

Aurtengo egitaraua

Hurrengo lanak pantailaratuko dituzte: hilaren 17an (19:30; kultur etxea, Azkue aretoa) lehiaketaz kanpo *Agurea eta balea* eta *Keep the Spirit Alive*; hilaren 18an *Emakume izena*, *Itxurbaltza*; *Tirillas kirolaria* "Exclusive"; *Express bahiketa*; *Errailetan* (Arditurriko meategia) eta *Eskoziak Galdeketak* ikusmiran; hilaren 19an *Soinuak Soin*; *Lekeitio*; *Poema baten irakurketa Euskal Herrian*; *Putz*; *Nun*; *Mutil gixajua*; *Uraren*

«Lehiaketakoakaz eta lehiaketaz kanpokoakaz ia 40 lan egongo dira ikusgai Ikusgarri zinema aretoan»

azalean; *Zatarrak!!* eta *Itzalitako telebista*; hilaren 20an *Psicobloc: Ur sakonetako bakardadea*; *Gelditour 2008 A.H.T. gelditu*; *M. T. 83 I - Praileaitz I.*; *Orain badakir*; *Lo bakarrik* eta *Aterpetxea*; hilaren 21ean *Bideo Sorta*; *Xabierto*; *Aurre in*; *La espinita*; *Hiru errege datoz...* "Bonbilloneko kabalgata"; *Pin Pan Pun*; *Andarika*; *Kilker* eta *emakumei buruzko gogoetak*; *Eskoziako Gaelera*. *Aro berri baten hasiera*; *Gizon lokartia* eta *Raskaana*; hilaren 22an *Bloody Mary*; *Azken trenak*; *Lorez beterik*; *Astoaren blues-a* eta *Looking for Mister X*. ○

azaroaren 3tik aurrera!

KOSKA
irratia 108 FM

Standard taldearen barritasuna Lan, izen eta bide barriakaz plazaratuko da nazioartea ikusmiran duen talde algortarra



Informazio gehiago: www.myspace.com/wearestandard

Standard izen laburreraz ezagutu genituen orain dela pare bat urte, 2005-2006 aldera Madril aldean lehiaketa entzutetsu bat irabazi ostean, 3.000w - 40.000 v. diskoa kale-ratu zutenean. Orduetik urteek bere bidea egin dute, eta bitartean, taldeak kontzertu andana eman, hamaika herrialde ezagutu, kideak aldatu eta lan barria prestatu du. Azaroaren 4an ipini zuten bigarren lana plazaratzeko data, eta ziuurrik taldearen izen luzea hartuko du diskoak ere: *We are Standard*. Gaur egun Deu Txakartegi, Jon Agirrezabalaga, Javi Leta, D.W. Farringdon eta Juan Escribanok osatzen dute; taldeak 8

hilabete eman ditu Gang Of Four taldeko Andy Gillegaz batera lan barria grabatzen, Londresen. Txakartegi han-hemenka eskainitako elkarrizketetan azaldu duenez, lan barria aurrekoagaz alderatuz "bestelakoa da", "landuagoa", "elektronikoagoa", letra kritikoagoak, "gitarra zorrotzagoak"... baina beti ere rock-pop dantzagarriaren uhinetan murgildutako taldea izaten jarraitzen du. New York, Valentzia, Alicante, Madril eta abarretan kontzertuak eman ostean abenduaren 19an Bilboko Kafe-Antzokian eskainiko dute zuzeneko, bide batez, lan barria aurkeztuz. ○

diskoak

Gu Gira

Hainbat artean
Elkar



Radio Euskadi eta Elkar argitaletxearen elkarlanaren ondorioz argitaratu da bilduma hau. Bertan Mikel Laboa, Xabier Leta, Lourdes Iriondo, Itoiz, Oskorri, Benito Lertxundi eta abarren kantak biltzen dira, argitaratzailearen esanetan, "euskal kantagintzaren hastapenetik 1983. urtera bitarteko ibilbidea batzen ditu disko bikoitz honek".

Muy toxico

Disturbio
Baga-Biga



Aguraingo taldearen hirugarren lana kalean dago dagoeneko, eta taldearen bilakaeraren ondorioz, lan barri hau hard-rockaren uretan murgiltzen dela azaldu dute. Iragan hilaren 18an OrdiziaRock jaialdian aurkeztu zuten zuzeneko laukoteak disko barria, eta abenduaren 5ean Bilborock aretoan eskainiko dute kontzertua.

Herriaren oihua

Hesian
Gor



Udan zehar hamaika kontzertu eskaini ostean, hamabi kantuk osatutako lehenengo lana plazaratu du Sakanako taldeak, copyleft lizentziarekin banatuko dute. Zortzi kideko taldearen estila hardcorearen eta abiadura handiko punkaren mugean ezarri dute adituek; letretan maitasuna, lurra, politika zein berdintasuna jorratzen dute.

Bunbury eta... > Meta-lite-musika

Urri argitaratu zuen Heroes del Silencio taldeko kide ohi Enrique Bunburyk disko barria, *Helville de Luxe*, hautsak harrotu ditu. Hainbat kantaren letratan zenbait poetaren "berbak" daudela adierazi dute aditu eta komunikabide batzuek. Diskoaren izenak Rob Zombie musikariaren Hellbilly Deluxe lanari gorazarre egiten diola onartu du Bunburyk. Ostera, "El hombre delgado que no flaquea jamas" kantari, hain zuzen esaldi hori, Pedro Casariego poetaren bertsolero bat da; horren albotik, hurrengo abesten du Bunburyk: "en aquella patria la que llaman lejos, allí me podreis buscar, donde se cruzan un siglo y un segundo"; eta horrek Joseba Sarrionandiaren bertsolerook ditu gogoan: "mendea eta sengundua gurutzatzen diren lekua... humin derizan aberian" (Ene Begiek poema). Kasualitatez poeta bien poema horiek *Ocho poetas raros* (Ardora) antologian batu zituzten aspaldi. Bunburyri plagioa egitea, kopiatzea aurpegiatu diote; berak "inspirazio ituri" direla dio, musikari askok egin eta egiten dutela. Non dago plagioaren eta inspirazio ituri/omenalditxoaren arteko muga? Metaliteratura deritzona hor dago eta suterik ez da inon sortzen. Bakoztak erabaki dezala!

Kauta > Lan barria

Kalean behar du dagoeneko Andoingo Kauta taldearen lan barriak. Mikelek (ahotsa eta gitara), Adrianek (baxua) eta Gorkak osatzen duten taldearen hirugarren lana da, 11 abestik osatuta dago. Kataluniako Wheel Sound eta Ultramarinos estudioetan grabatu zuten udan zehar, Atxeh (Hontza Produzioak eta Que Bolal-k osatua) zigitu barriak banatuko du.

Informazio gehiago: www.kauta.net

Getxoko Andra Mari
Gasolindegia

Etxera
eroaten dizugu
gasoleoa

Txartel hau aurkezten
baduzu 3 euroko
deskontua edukiko duzu
zure eskarian

Getxo eta Berango artean
Tel: 94 430 15 00

etorri
eta
ikusii!



ORIXA

liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalearekin bat)
Tfn.: 94 491 23 79
Algorta



GORLIZ IRRATIA
Urte Kostatua Irratia 107.3 FM
www.gorlizirratia.com

[liburuak]

Badoaz; izan eta izango dira

Lotzen garenon **jakin-mina asetzeko lekukotzak**, akorduan izateko...

Haiengana itzultzeko aukerarik ez dagoenean ahalegintzen gara, sarri, haien lana lurrazpitik atera eta goratzen; beranduegi agian... Haienganako berba ederrak aire-ratzeko... Ostera, izan zirelako lekukotza utzi dute, eta esker handiz horretarako saia-kera xumeegia duzue hauxe, lekukotza horietara hurbiltzeko gonbita; izaten jarrai dezaten. Besterik ere badago itzuliko ez diren artean, egindako lanagatik *gurean* lotuko diren artean, baina hirurengan ipini gura dugu oraingoan arreta: Elias Amezaga (Bilbo, 1921-Getxo, 2008), Gotzon Garate (Elgoibar, 1934-Deustua, 2008) eta *Iratzeder* (Donibane Lohizune, 1920-Beloke, 2008). Dramaturgo, antzerkigile,

«**2008ak eroandako hiru euskaltzale, euskalari eta literaturgileri...**»

saiakeragile, nobelagile, artikulugile... getxoztarrak euskal idazleen gaineko ikerketari eskaini zizkion ia bere urte guztiak, horren emaitza da Autores Vascos bio-bibliografia esanguratsua. Baina besterik ere idatzi zuen, oparo, horren adierazgarri dira irakurgai utzi dizkigun 60 liburu baino gehiago: bere lekukotza biziak, eta Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuona Saria (2005) jasotzea ahalbidentu ziotenak. Bigarrena, Jesusen Lagun-

liburuak



Nor da?
biografia bilduma
Txertoa

Historian zehar honengatik edo hartatik ezagun bihurtu diren pertsonaien biografiak euskaraz biltzen dituen bilduma da (9-12 urte bitartekoentzat). Euskaraz idatzitako bakararra Uxue Apaolazaren *Frantzisko Xabierkoa, iheslaria* da gainontzekoak (Gandhi, Da Vinci...) gazteleratik itzuli dira.



Atlas Historikoa...
Eduardo Perez
Elkar

Euskal Herriaren ikuspegitik osatutako lana da Eduardo Perez irakasleak prestatu duen *Atlas Historikoa*. Euskal Herria Munduan. 184 orrialdeetan historiari gainbegiratu egiten dio gaikako mapak, webgune interesgarrien zerrenda, infografia eta abarren bidez.



Gotzon Garate (Elgoibar, 1934-Deustua 2008)

diko abadea, idazlea, Euskal Filologia ikasketen bultzatzaile eta abiarazlea, eta euskal esatera zaharrik biltzen, zein liburu batean jasotzen (*Atsotitzak*, 2004) lan eskerga eta mardula egin zuena. Horrez gainera, narrazio, nobela, saiakera eta hiztegi lanak idazteari ez zion muzin egin. Eta hirugarrena, Xabier Diharce, *Iratzeder* ezinez ezagunagoa den beneditar fraide, poeta, antzerkigile eta euskaltzain osoa.

Hirurek ala hirurek merezi dituzte lerrook baino izkribu luzegoa; bego bere horretan gorazarre nimino, txikiegi hau, irakurleen hastapeneko ezagutza-gidatxo baino izan gura ez lukeena.

Hiru euskaltzale, euskalari eta literaturgileon gaineko informazio gehiago, esaterako:

www.armiarna.com
www.eliasamezaga.com eta
personal.redestb.es/amezaga/

[kirola]

Ane Ibarra > arraunlaria

“Aurten esperientzia berri piloa izan ditut; batelean, trainerilletan eta traineruan ibili naiz!”



Areetako 20 urteko arraunlariak Arkoten (Plentzia) dihardu

Aita, osaba-eta Raspas arraun taldeko zuzendaritzan ibili izan dira beti, eta Ane Ibarra ere bertan hasi zen arraunean. “3-4 urte eman nituen Raspasen, 3-4 neskato genbiltzan, horregatik ezin genuen batel baterako taldea osatu; eta niri aulki finkoa aulki mugikorra baino gehiago gustatzen zaidanez, Arkotera joan nintzen. Hau Arkotegaz nabilen 2. urtea izango da, iaz 7 bat neskato ibili ginen, eta aurten 9 bat izango gara”.

Iaz Zaragozan emakumezkoen traineruen estropada antolatuta zutela-eta Bizkaiko selezioa osatu zutela azaldu digu Ibarrak, “Gipuzkoaren kontra lehiatu ginen; oso ondo, galdu arren. Udan traineruagaz jarraitu dugu, Kontxako estropada antolatu zutelako. Emakumeontzako, eta niretzat, itzela izan da! Espero nuen jendea egotea, baina ohiko kopuruan, eta ez, piloa egon zen, oilo-ipurdia ipini zitzaidan! 8 traineru aurkeztu ginen: Galiziakoa, kataluniar 2, 3 gipuzkoar, Astillero eta geu. Ez ginen sailkapenera heldu, baina oso pozik lotu ginen. Kontxako lehen estropada izan da emakumeontzako, eta hain inportantea denez, agian arrauneko estropadarik inportanteena, guretzat itzela izan da!”. Ibarrak azaldu legez, badirudi aurten emakumezkoen arrauna bere lekutxoan egiten hasi dela, “komunikabideek ere arreta eskaini

diote, hainbatek atera zuen berria”. Baina lehengoak bitxikeriaren lilura izan ohi du: “Arazoa da neska gutxi gabiltzala arraunean, eta horrela zaila da trainerua mantentzea. Ekainean ordezkioak osatu genuen trainerua, baina iraillean arazoak eduki genituen”, azaldu du areetarrak. Sopela-Getxon egindako Atlantiar Jokoetan ere parte hartu zuen: “Aurten espe-

«**Kontxako estropadan olatu pilo eta handiak izan genituen; mutilek gutxiago, txikiagoak**»

rientzia berri piloa eduki ditut! Batelean, trainerilletan eta traineruan ibili naiz. Ekainean Joko Atlantikoetara joateko deitu zidaten Euskadiko selekzioetik. Europako leku askotatik jende piloa etorri zen. Beste esperientzia bat; aurtengoa itzelezko urtea izan da, desberdina guztiz”. Arraunlari gazteak badu aldarrikatzeke beste zerbait ere: “neskok gizezkoak bezala arraunean jardun ahal dugula, eurak gu baino indartsuagoak izan arren, gaitasun bera dugu! Arraunean jarduteko denok gara gai, eta uste dut enakutsi dugula: Kontxakoa itzela izan zen, olatu pilo eta handi-handiak, mutilek askoz olatu gutxiago eta txikiagoak izan zituzten! Arraunak kirol gogorra dirudi, baina ez da horrenbesterako!”. ○

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa
Kirol moda



350 M²
KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXEKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris S.L. SERVITEC



- MARKA GUZTIAK
- 24 ORDUTAN ERANTZUNA
- 3 HILABETEKO GARANTIA
- 25 URTEZ ZURE ZERBITZUAN
- IRTEERA DOAN

Tel: 94 430 52 00 Kasune, 18 · ALGORTA

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

Gabirel Ezkurdia > Basque Power taldeko kidea

“Gutxiak daki Nafarroaren parte ginela; beti Gaztelari lotuak egon garela uste dute”



Gabirel Ezkurdia

Erdi Aroko azokak oso modan daude, baina badirudi danak igualak izaten direla. Euskal historiagaz zerikusirik ez dutela uste dute Basque Power taldekoek, eta horregatik ospatu zuten Euskal Herrian girotutako lehenengo Erdi Aroko azoka Berangon, urriaren 11n eta 12an. Iñigo Aritzaren arrano beltza eta Nafarroako bandera ikus zitezkeen, euskaldunen lehenengo ikurrak, Nafarroako Erresuma berpiztuta.

—Urrian ospatu duzue Euskal Herrian girotutako lehenengo Erdi Aroko azoka Berangon, zer izan du berezirik?

—Dana. Hasteko, lekua zoragarria izan da, eta mamia ere bai. Helburuak ez dira izan merkataritzari bakarrik lotuak. Mundu horri beste buelta bat emanez, Euskal Herriko historiari eta garai hartako errealitateari buruzko egun magikoak izatea gura genuen. Txukun geratu da, baina hobetu liteke. Egoizleak eta zerbitzuak euskaldunak izatea gura genuen. Zoritxarrez, ez dago artista aski horrelako azoka bat muntatzeko, eta derri-gortuta egon gara kanpoko enpresa bategaz

behar egitera, baina beste azoka batzuek konparatuta, lortu dugu ekitaldi guztiak euskaraz izatea behintzat.

—Zergatik antolatu?

—Gure enpresak, Basque Power-ek, hiru helburu dauzka. Euskaldunak, Europako herririk zaharrena izan arren, eta arlo guztietan hainbeste gauza bikain egin arren, ukazioa pairatzen dugu, bai herri bezala, baita hemen dauden gauza positibo guztiei buruz ere. Bigarren lerroa da euskaldun guztiok nafarrak garela: Nafarroa izan zen gure Estatua sasoi batean, Erdi Aroan, horregatik da garrantzitsua horrelako ekitaldiak egitea,

jendeak ezagut dezan gure historia. Oso gutxiak daki Nafarroako Erresumaren parte ginela; beti Gaztelari eta Frantziari lotuak egon garela uste dute gehienek. Azokan bertan panel informatiboak jarri genituen hori dena azaltzeko.

—Gainera, abiapuntua izan da, ezta?

—Bai, hala da. Hasteko, datorren urtean Berangon errepikatuko dugula uste dugu, Udala oso pozik baitago. Hobekuntzak egingo dizkiogu, gainera. Bestalde, Euskal Herri osora zabaldu gura dugu, bagaude beste zenbait herrigaz harremanetan, eta gure helburua mota horretako azokei gure eskaintza

«Gure historiari buruzko egun magikoak izatea gura genuen Berangon»

gehitzea da, baina agian goizegi da barria zabaltzeko. Bizkaian, Gipuzkoan eta Araban ere egingo genituzke. Dena dela, beste esparru batzuk ere jorratzen ditugu, eta ezin gaitzke ito honetan.

—Zeintzuk esparru dira horiek?

—Textil lan handia egiten dugu, laster aterako ditugu kamiseta barriak. Hemengo da materiala, bertan josia. Bertoko produktu naturalak eta ekologikoak ere zabaldu gura ditugu, gure lurragaz lotura zuzena dutenak. Gune batzuk zabaltzen gabiltza beste enpresa txikiakaz, beti lan egiten dugu modu horizontalean; horrelako sare handi bat egitea da helburua. Gure ustez, ildo horretatik etorriko da Euskal Herriaren askatasuna.

—Basurdearen ikurra darabilzue, kotxeetarako pegatina, horren adierazle al da?

—Erreferentzia sinboliko polita da. Basoko basatia da, baskoia bezala. Basetxetik dator baserria, hortik Basque Country, hortik basatioia, eta defendatzen da basque powerragaz. Independientea da, jatorra, eta ez du erasotzen bera erasotzen ez badute. ○

Erosi euskaraz eta oparia jaso
kanpainaren bitartez Leioako merkataritzan
euskara sustatzeko laguntza ematen digutenei

Eskerrik asko!

LEIOA

ZABALDU EUSKARARI

Uria harategia-fruita denda
Dalton's taberna
Orixe Autoeskola
Maribe Estetika
Milabari Arrandegia
Galtxagorri Arropa-denda
Saratxo Loteria-denda
Javier Tindategia

Kopi Leioa
Otsagi Arropa-denda
Linsay tindategia
Daniel Harategia
Txitoa taberna
Kurkudi taberna
Donibane Prentsa
Uria harategia-fruita denda

Euskara zerbitzua Leioako UDALA

BFA DFD


Badakizu zein den gure altxorrik handiena?

Orain arte, Getxoko turismo eskaintza, bere kaleak, zubiak, hondartzak, etxeak eta abar izan dira. Orain, Getxoko Udalak bertara datozen turistei beste altxor bat erakutsi nahi die.

Udaleko Euskara Zerbitzuak kalerafutatako lauomkoarekin herrira datozen turistei ongietorria egin nahi die eta EUSKARA ere badugula eta gure altxorra dela adierazi nahi die.

Horretarako, hiztegi txiki baten laguntzaz animatu nahi ditu hirulau berba ezagutu eta erabiltzera.

Getxoko udalak, UK irakurtzen duzuen herritarrei ideia bat helarazi nahi dizue. Zuen etxera kanpoko norbait baldin badator, eskatu turismo bulegoan lauomkoa eta aurkeztu zure gonbidatuari Getxoko altxorrik handiena: EUSKARA!



BADAKIZU ZEIN DEN GURE ALTXORRIK HANDIENA?


SAPS QUIN ÉS EL TESOR MÉS GRAN QUE TENIM?

¿CONOCES NUESTRO MAYOR TESORO?

DO YOU KNOW OUR GREATEST TREASURE?

CONNaissez-VOUS NOTRE TRÉSOR LE PLUS CHER ?

Euskara



[norajoan]

El rincón de Telleria

Mediterraneoko usain eta zaporeak



Alex eta Natxo Garcia anaiek zabaldu zuten El rincón de Telleria

Uholdeek inaugurazioa atzeratu bazuten ere, uztailearen 2an ateak zabaldu zituen Leioako Telleria kaleko txoko barriak. Alex eta Natxo Garcia anaiek zabaldu dute El rincón de Telleria jatetxea. Alex kale berean dagoen "La caseta" jatetxe italiarreko jabea da: "Lokala utziki gelditu zen, eta jabeak honen kargu egitea proposatu zidan. Nik anaiari esan nion, eta biok batera animatu ginen".

Janari mediterraneo da menuaren ardatza, arrozak eta barazkiak: "Argi geneukan erreferente indartsua izango zuen jatetxea sortu nahi genuela, ez bakarrik plater tradizionalak eskainiko zituen. Horregatik, mediterranear kutsuko janaria aukeratu genuen". Hala ere, badago haragia eta arraina jateko aukera: "Goi-mailako haragia

ekartzen dugu; Trapagako harakin bati erosten diogu". Aukeratzeko zailtasunak ematen ez dituen karta diseinatu dute: "Di-da batean ikusten den karta da gurea: lau hasierako, bost entsalada, lau paella, lau barazki modalitate eta haragia edo arraina. Aukera erraza ematea, eta lehengai pilaketarik ez egotea da gure asmoa".

Zailtasunak-zailtasun, Garcia anaiek pozik daude jendeak eman duen erantzunagaz: "Bariku gauetan jende asko hurbiltzen da; zapatu eta domekatan ere bai". Leku lasaia da El rincón de Telleria, eta aparkalekua dauka ondoan: "Oso garrantzitsua da hori, kontuan izanda gaur egun denbora gutxi izaten dugula bazkaltzeko".

Telleria auzoa 3, LEIOA
Tel.: 94 491 53 90

KONTXI
ZU AZUBISKAR

URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko,
Pate eta Gaztaietan!!

Alangobarri, 10 ALGORTA
T.: 94 491 02 93

GOZOLABEA

galdaretxe

- Maidagan, 35 GETXO Tel. 94 491 11 25
- Mayor, 17 AREETA Tel. 94 464 77 29
- Sabino Arana, 67 LEIOA Tel. 94 464 40 58
- Telletxe, 11 ALGORTA Tel. 94 460 32 14
- Sabino Arana, 9 SOPELA Tel. 94 676 11 01

ARTAZA ETXEA
jateetxea
• gozariak
• txuletoia • makailua
• arrain freskuak
asteburuetan bazkari eta afariak enkarguz

Erreserbak: 94 463 03 92
Artaza Etxea Eraikina. Gobela eraikinaren aurrean • LEIOA

JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • TEL.: 94 464 41 25

AREETA



BASALBO BASERRIA

JATETXEA

TEL./FAX: 94 491 34 91

MARTITURRI ESTARTA 18
48993 ANDRA MARI -
GETXO

basalbobaserria@yahoo.com



prentsa • aldizkariak

GETXOKO KIROI PORTUA
Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)
T:94 430 69 42 /ALGORTA

GOIZEAN



"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Litxarriak

Orduña Mendatea 1 Telletxe 13
T: 430 22 13 T: 460 02 88
GETXO ALGORTA

**Usategi
kafetegia**



Usategi parkea z/g,
Algorta

*Telf. erreserbak: 94 460 64 13

[horoskopoa]

URA



(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Zure ingurua zuk uste baino kontrolatuago daukazu. Egoera eskuetatik joaten zaizula pentsatzen baduzu ere, natura zure alde dago, eta behar duzun gutzia lortzen lagunduko dizu.

AITZURRA



(Martxoak 21 apirilak 19)
Ingurukoek zuri buruz esaten dutenari lar garrantzi emoten diozu. Zure moralaren arabera bizitzen ikasi behar duzu; besteen iritziaik entzutea ondo dago, baina ez lar kontuan hartu.

GARIA



(Ekainak 19 uztailak 18)
Aspaldiko lagun baten bisita jasoko duzu etxean. Dena hankaz gora jarriko duen arren momentu gozoak gogoratzen lagunduko dizu. Joaten denean zapote gazi-gozoa utziko dizu, baina bisitak merzei izango du.

META



(Irailak 17 urriak 16)
Lana, lana eta lana. Hori da azken boladan buruan daukazu bakarra. Ingurukoak nekutzen hasiak dira, ez baitiezu kasurik egiten. Batez ere, zure bihotzeko azukre kokorrari.

OTSOA



(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Lan artistikoak egiteko garai aproposa da. Ezagutzen ez zenituen abileziak dituzu, eta apurka-apurka deskubritzen joango zara. Lagun berezi horri sorpresa ederra emateko erabil itzazu dohain misterioitsuak; eskertuko dizu.

HOSTOA



(Apirilak 20 maiatzak 19)
Besteentzako oporrak aspaldi amaitu baiziren ere, zurek helduek daude. Hurbil zaitez liburu-dendara, eta eros ezazu bidaia gida bat. Baina ez gehiegi irakurri; inprobisatutako bidaia interesgarrienak izaten ohi dira.

LASTOA



(Uztailak 19 abuztuak 17)
Eztulak ez dizu lo egiten utziko, eta horren ondorioz zorabioak izango dituzu lanean. Amari kasu egingo bazenio... Uda irailean joan zen, eta bada jertsea janzteko garaia. Baina zuk oraindik sandaliak oinetan.

HAZIA



(Urriak 17 azaroak 15)
"Maite ditut maite gure bazterrak lanbroak ezkutatzen dizkidanean..." Mikela Laboaren kantak barruraino sartzen zaizkizu beti. Eta behin barruan dituzula ezin atera.

ADARRA



(Otsailak 19 martxoak 20)
Argi dago teknologia barriek eta zuk ez duzuela bikote ona osatzen. Hala ere, ez etsi; gehiago saiatzen bazara oinarriko ezagupideak barneratzea lortuko duzu. Ordenadore barria erostea ez da irtenbidea, zaharrak asko dauka emateko ondino.

EGUZKIA



(Maiatzak 20 ekainak 18)
Telefonia hartu eta birritan pentsatu barik deituz. Zure deia itxaroten dago; baina, laster egiten ez baduzu, pazientzia agortuko zaio. Agian mezu bat bidalita nahikoa izango da. Ondu pentsatu zer idatziko duzun.

IRATZEA



(Abuztuak 18 irailak 16)
Bart ikusitako filmak gehiegi pentsarazi dizu. Agian, dena utzi eta alde egin beharko zenuke, protagonista gazteak egiten zuen bezala. Baina badakizu koldar hutsa zarela eta inoiz ez duzula horrelakorik egingo.

NEGUA



(Azaroak 16 abenduak 20)
Pilak ondo kargatu zenituen udan eta horrek ikasturtea gozoz hasten lagundu dizu. Horrela jarraituz gero, konturatu barik helduko da 2009ko uda. Eta horregaz batera jaiak, bidaia, hondartza...

badator koska berria!



Uribe Kostak behar duen informazioa


www.koskairratia.com



denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik

HITZ GURUTZATUAK



Ezker eskuin

1. Zerbait ospatzeko antolatzen den ekitaldia. 2. Lau angeluak zuzenak eta aldeak binaka berdinak dituen poligonoa. 3. Grina, nahi bizia. Akuri. 4. Berreketaren ikurraren izena. Ahariaren eme. Sufrearen ikurra. 5. Bokala. Europako estatua. 6. Emakume gaztea. Naiz. 7. Daukat. Suari dariona. Osmioaren ikurra. 8. (Zah.) Zakurrak. Iragan. 9. Jainko eskandinaviarra. Urre, hitz elkartzeetan. 10. Hala ere. Ingelese, haritz.

Goitik behera

1. Olibak ematen dituen arbola. Hidrogenoaren ikurra. 2. Hariak lasaiki lotuz egiten den ehun. Gure egungo dirua. 3. Iseka eta iraina. 4. Una, neka. K bikoitza. 5. Katilu txikiak. Lehen pertsona. 6. Maindiera. Bizkaieraz, omen. Potasioaren ikurra. 7. Bigarren pertsona. Noka, dugu. 8. Hondarra, hondakina. Garai. 9. Neroni. Idorra. 10. Alkohol edari. Osotasunean daudenak.

Soluzioak



asmatu eta irabazi > ARGIA astekariaren opariak



Nor da?

- Zortzimilakoetan erraz moldatzen da
- Manaslukoa izan du azkeneko tontorra
- Tolosan jaioa

> Aurrekoaren erantzuna: Gotzon Garate
> Irabazlea: **Iker Goñi Antuñano (Getxo)** *

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean lagun birentzako menu berezia zozketatuko dugu:
UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo
uk@aldizkaria.biz

•Argia astekariaren hiru bilabeteko harpidetza doan



•Freexkue liburua

www.argia.com



JOSE IGNACIO SARRIAK UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

Leioako San Juan Bataiatzailea Abesbatza, 1971

Izen bereko parrokiaren zegoen eliz koruan oinarrituta sortu zen Leioako abesbatza hau, Jose Ignacio Sarriaren eskutik; bera izan zen sortzailea/zuzendaria (1968-1984). Ahots zuriak gehitu zitzaizkien lehengo gizonen ahotsi, eta horrela 70 lagun inguruko taldea osatu zen. Beraien parrokiaren izen lehena kontzertua, 1968ko abenduan, Leioako Ameslariak (Javier Uriaren zuzendaritzapean) zortzikoteagaz eta Jose Ignacio Eguzkiza organistagaz batera. Sortu eta hiru urtera aterata dago goiko argazkia herriko Ikea zineman. Lehen aroan oso garrantzitsua izan zen Fina Folcoren (GB) lana; bera izan zen abesbatzaren ahots irakaslea. Datorren 28an herriko San Juan Bataiatzailea elizan izango da kontzertua 40. urteurrenaren arira; baina urteurrena ospatzeaz gainera, abesbatza honek aldaketa sakona izango du: taldekide guztiak gazteak izango dira, ahots zein musika arloetan heziketa handikoak. Zorionak 40. urteurrenagatik eta zorte on aro barrian!

- 1go lerroa:** J.J. Ansoleaga, Pedro M. Goiri, Jon Arechavaleta, Felix Birrun, Luis Ormaetxea, Juan Carlos Ungo, Vicente Arriola (GB), Felix Aretxaga (parrokia), Antonio Morteruel, Joseba Monasterio, J. Luis Aretxabaleta, Luis M. Perez, Javier Ugarte, Javier Ormaetxea, Paco Hernandez, Vicente Samaniego, Lauri Gonzalez, Miguel Angel Pertiñez, Jose Ignacio Azcueta.
- 2. lerroa:** Angel Regeiro, Poli Gaubeca (GB), Aitor Jemein, Miguel Elordui, Eloy Uribebarria (GB), Juan Alfonso Landa, Jesus Gortazar, J. Ignacio Sarria, Jesus Mari Libano, Jose Manuel Barrado, Iñaki Learra, Txomin Aresti (GB), Ignacio Ayo, J. Manuel Rodriguez, Luis Gonzalez (GB), Txema Gonzalez, Javier Goiri.
- 3. lerroa:** Luis Angulo, Cari Martin, Mari Feli Ormaetxea, Begoña Urreta, Manoli Blanco, Mila Guzman, Alicia Basterra, Piedad Ramon, Arantxa Intxaurre, M. Angeles Eguren, M. Jesus Lopez, Lourdes Garcia, Charo Bailon, Marisol Libano, Begoña Nuñez, Miren Uriarte, Arantza Zarraga, Pepe Lopez (GB).
- 4. lerroa:** L. Ignacio Landa, Pili Bilbao, Clari Zulueta, Ima Basterra, Garbiñe Ormaetxea, Eli Consuegra (GB), Merche Barroso, M. Asun Ariño, Goizalde Perez, Mari Carmen Arrola, Luci Jemein, Maika Fernandez, Agurtzane Ormaetxea, Araceli Velazquez, Arantza Gondra, Maria Angeles Libano, Antonio Sarria.



gure posta elektronikoa

uk@aldizkaria.biz

UK Uribe Kostako Aldizkaria

[aitormenak]

OIHANE PEREA > Bertsolaria

“Egunez egiten ez ditugunak egiteko aukera ematen du gauak”

Testua: **Maitane Nerekan**



Defini ezazu zeure burua berba bitan.

Berritsua eta burugorria.

Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien?

Txirrita. Ederki bizi zen, nik uste dut gizon zoriontsua izan zela; 80 urte eduki arte burua martxan izan zuen. Gainera, arrastoa utzi zuen; berak esan bezala: “*Nere aipamenak entzungo dira beste 80 urtetan*”.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

Ez nuke nahi protagonistarena egin; nahi gabe protagonista izaten naiz askotan. Paper sekundarioa egingo nuke gustura.

Orain zarena izango ez bazina zertan nahiko zenuke jardun?

Antzerkian lan egingo nuke. Interesgarria iruditzen zait, eta sormenarekin zerikusia dauka. Ederki pasako nuke nik antzerkian.

Ohitura txarren bat al daukazu?

Asko. Bereziki... desordenatua naizela.

Berriz egingo zenukeen bidaiarik ba al dago?

Italia eta Greziara joango nintzateke. Joan nintzenezan 15 urte nituen, eta orain seguruenik beste modu batera ikusiko nuke.

Zer hutsegite ez duzu sekula barkatzen?

Gezurra.

Zer gabe ezin zaitzke bizi?

Nire semea gabe.

Zure ametsetako bat?

Kubara joatea, umerik gabe.

Eguna ala gaua?

Gaua. Babesten zaitu, eta egunean egiten ez dituzun gauzak egiteko aukera ematen dizu. Gainera, parrandarako egokia da gaua.

Euskal Herriko zure txoko kuttuna?

Antoñana (Araba). Txikitatik hara joan izan naiz; iheserako lekua da. ○

LABURREAN— Araban ere goi-mailako bertsolariak dauden adibidea da Oihane Perea (Gasteiz, 1977). 12 urteaz hasi zen Gasteizko bertso-eskolan. Ordudanik, Euskal Herriko hainbat plazatan egoteaz gain, lan handia egin du bertsolaritzan. Gaur egun, Arabako txapeldunordea da, eta halaxe izan da beste urte askotan. Magisteritza ikasketak egin ditu; Bertsozale Elkartearen transmisio lanetan aritzeaz gain, bertso eskoletan dabil irakasle. Uribe Kostan, Emetik Bertso Kabareta espektakuluagaz ikusi ahal izan dugu, Onintza Enbeita eta Iratxe Ibarrarekin batera.



Negu honetan, ahaztu hotza.

ESKAITZA
PAREGABEA

Naturgas energiarekin, gas naturalez gozatuko duzu etxean.

Orain, erosotasunik handienaz gozatzea inoiz baino errazagoa da. Izan ere, fabrikatzaileekin eta gas-instalatzailerekin lortutako akordioari esker, guk gas naturalerako instalazio osoa egingo dizugu, eta zuk orain arte sekula inork eskaini ez dizkizun baldintzak izango dituzu.

Egundoko prezioan:
3.300€
[BEZ kanpo].

+

KREDIGAS
finantziazio berezia,
instalazio hileko kosta erositan
finantzatzeko.

+

570€
ere emango dizugu

Promozio honek 08/12/31ra bitartean iraungo du.

Finantziazio berezi honen interes-tasa 2008-eko %5,25ekoa izango da (Credigas). Gureko tarifa baduzu, edo 85 urtez garakoa bazara, 570 € jasoko duzu; halakorik ez baduzu, 270 € jasoko duzu. Prezioa gutxi gorabeherakoa da, berruko instalazioa egiteko, kontentzio-galdara (markaren arabera) eta 6 errodadore (45 elementu) jartzeko. Promozio estandarren gaineko ezaizen aldaketak, apanteko aurkeztutako izango du. Promozio honetaz balazteko, Naturgas Energia Comercializadora, SAUrekin harikuntza eta egin beharra dago.

902 123 456 Telefono Urdina
www.naturgasenergia.com

 **naturgas
energia**



OSPATU ETA OROITU EUSKARAZ

Getxoko Udaleko Euskara Zerbitzuak zorion-txartel, gonbidapen edota oroigarri ereduak batzen dituen liburuxka argitaratu du. Liburuxka kontsultatu nahi izanez gero jo ezazu iragarki honetan agertzen diren dendetara. Udalaren web gunean ere aurkituko duzu: www.getxo.net

ARGAZKI LUR VILLAMONTE
LIBRERÍA ZUGATZARTE
NORAY LIBURUDENDA
KALKO KOPIAK INPRENTA

Beherapena egingo dizute

ARNAGA
BEHIN BATEAN
BOLIVAR ELORDUI LIBURUDENDA
CIANOPLAN
COSAS
EUSKAL COLOR
FOTO IÑAKI
FOTO RICARDO
FOTO Y PAPEL
FOTOCOPIAS KISER
IMPRENTA ARENAS
ITXAS-IKUS
KOPRINTER
LADREDO HERMANOS
LIBRERÍA ITZIAR
LIBRERÍA MAYOR 29
LIBRERÍA NADAL
LIBROS PAPELERÍA ANA M^o BOLOIX
PROPLANOS
SERCOPI

